#19 / 2021 UZTAILA

artelka

Argi-iluneko piztiak

GEDAR

Azala

Sim (José Luis Rey Vila)

Edu Vidiellaren artxiboa

«Faxismoak, bada, bere agerpen historikorako baldintza objektiboak sistema kapitalistan bertan aurkitzen ditu. Sistema horrek berak sortutako baldintzapen sozialak eta haien arabera antolatutako gizabanakoak dira faxismoaren sostengu. Hau ez da, beraz, egun batetik bestera agertzen; krisi kapitalista bezala, eta hari dagokion haustura soziala bezala, latentea da, hainbat esparru soziologikotan igar daiteke bere joera; une historikoaren zain, eztanda egiteko. Sistema honen sostengu diren horien guztien ardura da faxismoa, eta bereziki proletalgoaren dominazio kapitalista helburu duen sozialdemokrazia horrena, zeinak, kapitalismoaren aurka ez borrokatzeaz gain, bere baitan nahasten dituen baldintzapen sozial desberdinak, haiei faxismoaren aukera historikoa zabaltzeko»

EDUKIA

06
EDITORIALA
Arteka

Erreformismoaren ezintasuna

10
KOLABORAZIOA
Beñat Aldalur

Faxismoa XXI. mendean. Konparaketa historiko bat

26

IKUSPUNTUA
Maddi Sarasua

Etxebizitzaren auzia
Ipar Euskal Herrian

ELKARRIZKETA
Arteka — Bultzada Txuriurdina

«Orokorrean, epe motzean pizten da kontzientzia hintxadetan. Gai konkretu batzuen inguruan jendea bildu, jantzi, eta horretan lan egiten hasten dira kideetako asko»

ERREPORTAJEA
Jon Kortazar

Frankismoa, faxismoa
eta faxistatzea

Erreformismoaren ezintasuna

EDITORIALA

Sarri, baliabide politiko antzu bilakatu da faxismoa, eztabaida bat kolpez bukatzeko bitartekoa. Batetik bestera ikusi dugu objektu jaurtigarri gisa, buruetara zuzen, baina inolako hausnarketarik gabe. Tradizio politiko erreformistak, esaterako, faxismoaren edukia bere adierazpen aldebakarrekoen arabera formulatzen du; hortik aurrera formula bat errepikatu eta errepikatu.

Faxismoaren klase edukiaren eta bere funtzio politikoaren inguruko hausnarketa ezinbestekoa alboratu egin da. Faxismoak fenomeno historikoa izateari utzi dio, estetika, diskurtso edota deskribapen gisa agertzeko. Horrek bere identifikazioa zaildu egin du, bere aurkako borroka lausotuz edo zuzenean ezabatuz.

Logikak diosku: faxismoa errezeta jakin baten arabera zerrendatutako ezaugarrien multzoa baldin bada, hortik kanpo geratzen dena ez da faxismoa. Identifikazio eskematikoaren behar hori klase ertainaren erraietatik bertatik jaiotzen da. Izan ere, klase ertainak, bere barne haustura modu eskematiko horretan aurkeztu behar du, ezinbestean, ezkerraren eta faxismoaren arteko bereizketa kontrakotasun gaindiezin gisa irudikatu ahal izateko; hau da, barne erlaziorik gabeko bi fenomeno gisa aurkezteko. Faxismoa, ordea, ez da ausazko fenomenoa, klase ertain osoaren joera historikoaren adierazpen his-

Faxismoa, ordea, ez da ausazko fenomenoa, klase ertain osoaren joera historikoaren adierazpen historikoa baizik; klase ertainaren ezintasunaren adierazpen politikoa da, eta bere ezintasun politikoa ezker politika erreformista da

Horregatik, faxismoa gailentzen denean, sozialdemokraziak porrot egin du; ezgai agertu da sistema kapitalista demokrazia burgesaren bidetik erreformatzeko. Baina ez du porrot egin, elkarren aurka diharduten bi borrokalarik egin dezaketen bezala. Ez du porrot egin kanpo aurkari baten aurka, baizik eta bere barren-barrenean galdu egin du

torikoa baizik; klase ertainaren ezintasunaren adierazpen politikoa da, eta bere ezintasun politikoa ezker politika erreformista da.

Ezintasun hori ez da, ordea, klase ertainak gainditu dezakeen muga bat. Egiturazko ezintasuna da, eta joerazkoa, soilik klase ertaina deseginda, eta harekin batera bere oinarri den gizarte kapitalista deseginda, gainditu daitekeena. Klase ertainaren barne haustura ez da kontrakotasun subjektibo baten emaitza, desadostasunen ondorioa; haustura sozialaren emaitza baizik. Eta haustura sozial hori kapitalismoak sortzen du, baina are gehiago, kapitalismoaren sorburu da. Klase ertaina aurretiazko haustura sozialaren adierazpena da, eta preseski haustura sozial horrek gizarte unitario batean halabeharrez hartu beharreko forma soziala da klase ertaina. Horregatik bere izaera gatazkarena da, kontraesanarena, gizartearen polo batetik (burgesia) beste polo batera (proletalgoa) etengabe salto egiteko joera. Izan ere, klase ertaina gizarte harmoniatsu baten iruditegia sortzen duen figura soziala da, gizarte horren oinarriak krisian sartzen direnean suntsitu behar dena, baita modu bortitzean suntsitu ere.

Haustura sozialaren emaitza da, beraz, faxismoa. Eta haustura sozial hori gizarte kapitalistaren oinarria da. Haustura sozial hori bide «baketsutik», hots, klase ertainaren kontrol totalitariotik, gatazkaren parametro onargarrietara bideratzeko gaitasuna galtzen da krisi kapitalistaren garaian; hain zuzen ere, klase ertainaren desintegrazioarekin batera, bake sozialaren kulturaren sorburua ere desegiten delako. Halako egoera batean, ez da harritzekoa gatazka sozialaren parametroak klase ertainaren bi poloetan zentratzeko joera nagusi izatea: alde batetik faxismoa eta bestetik sozialdemokrazia. Baina hori ez da bata eta bestea antagonikoak direlako, baizik eta bata eta bestean krisiaren ondotiko sistema kapitalistaren berregituratze sozialerako bi aukera kondentsatzen direlako, benetan hautsi dena bake soziala bermatzen duen figura soziala delako. Azken batean, klase ertainaren bi joera politikoek klase ertaina berregituratzea dute xede, klase ertaina baita bake sozialaren bermea.

Horregatik, faxismoa gailentzen denean, sozialdemokraziak porrot egin du; ezgai agertu da sistema kapitalista demokrazia burgesaren bidetik erreformatzeko. Baina ez du porrot egin, elkarren aurka diharduten bi borrokalarik egin dezaketen bezala. Ez du porrot egin kanpo aurkari baten aurka, baizik eta bere barren-barrenean galdu egin du. Faxismoa eta sozialdemokrazia elkar barne hartzen duten bi adierazpen politiko baino ez dira, mugimendu poli-

“

Klase ertainaren ezintasun kolektiboak, klase ertaineko norbanakoen gailentasun moralari ireki ohi dio bidea. Soziologikoki, irrazionaltasun horretan aurkitzen du faxismoak bere jatorria. Hau da, eztabaida politikoaren arrazionaltasuna «izan beharreko» baloreen irrazionaltasunak ordezkatzen du. «Izan behar» hori norbanako zehatzek ordezkatzen dute: faxismoan liderra izan ohi da, eta haren inguruan ibiltzen diren tarteko agintariak. Ez da konbentzimendua agintzen duena, sineskeria baizik; konfiantza itsua agintariekiko, eta haien figurarekiko laudorioa, norbanakoa bera argudio bilakatzeraino.

tiko eta klase soziologia berdinaren barrenean elkarren aurka borrokatzen direnak. Hau da, faxismoa sozialdemokraziaren barren-barrenetik sortzen den joera historikoa da; biek dute azken helburutzat, ez batak bestea garaitzea, baizik eta klase ertaina bera gainduituko duen proletalgoaren iraultza sozialista zapuztea; hau da, komunismoaren aurkako eta sistema kapitalistaren eraberritzearen aldeko estrategia politikoak dira biak. Hori dela eta, bietan ere profil soziologiko parekoak antzeman daitezke.

Profil soziologiko horien ezaugarri nagusiena despolitizazioa eta nagusitasun morala dira, biak elkarri lotuta. Izan ere, nagusitasun morala norbanakoari dagokio, baina ez nolanahiko norbanakoari: norbanako despolitizatuari, gestoreari, militante onari, curriculum paregabea duen horri, ez duena arrazionaltasun politikoaren beharrik bere ikuspuntu eta posizioak inposatzeko. Klase ertainaren ezintasun kolektiboak, klase ertaineko norbanakoen gailentasun moralari ireki ohi dio bidea. Soziologikoki, irrazionaltasun horretan aurkitzen du faxismoak bere jatorria. Hau da, eztabaida politikoaren arrazionaltasuna «izan beharreko» baloreen irrazionaltasunak ordezkatzen du. «Izan behar» hori norbanako zehatzek ordezkatzen dute: faxismoan liderra izan ohi da, eta haren inguruan ibiltzen diren tarteko agintariak. Ez da konbentzimendua agintzen duena, sineskeria baizik; konfiantza itsua agintariekiko, eta haien figurarekiko laudorioa, norbanakoa bera argudio bilakatzeraino.

Halakorik ere igar daiteke ezkerreko alderdietan, bereziki erradikaltasuna antzezten duten horietan. Kritika politikoa egiten zaienean, trukean argudio politikorik ez, eta eraso pertsonalak, galoiak argudio gisa eta idolo bilakatutako norbanako zein kolektiboak, zeinak eredu diren... eztabaidarekin kolpez bukatzeko. Horrekin batera, negatibotasuna zabaltzen dute etorkizunarekiko: errealitatea aldatu ezin denaren ideia zabaltzen dute, utzikeria eta gizabanakoekiko mespretxua, dena galduta dagoenaren ustea, besteak, hots, gizartearen gehiengoak, ez dituelako haien baloreak konpartitzen, izkin egiten dielako edota ez dituelako zuzenean babesten. Hauteskundeak galtzen dituztenean, haiena ez den iritzi bat zabaltzen denean... arrazoia beti da norbanakoen maila apala, gizateriaren ezintasun biologikoa edota faxismoari mesede egiten dioten bestelako posizio esentzialistak; zeinak, finean, historikoki eman diren sarraski desberdinak babesteko balio dezaketen. Erraz antzeman daiteke sozialdemokrazian jarrera faxistarik, edo gutxienez faxismoari baliagarria zaionik. Baina ez norbanakoen adierazpen gisa, baizik eta mugimenduaren isla diren jarrerak dira. Faxismoa ez baita hauteskundeetan egin daitekeen hautu politikoa, antolakuntza forma aktiboa baizik, eta harekiko subordinazio zehatza, zeina bere hastapeneko ezaugarrietan baldin bada ere, ezkerrean bertan igarri daitekeen, aukera potentzial eta gaur egungo gisa.

Faxismoak, bada, bere agerpen historikorako baldintza objektiboak sistema kapitalistan bertan aurkitzen ditu. Sistema horrek berak sortutako baldintzapen sozialak eta haien arabera antolatutako gizabanakoak dira faxismoaren sostengu. Hau ez da, beraz, egun batetik bestera agertzen; krisi kapitalista bezala, eta hari dagokion haustura soziala bezala, latentea da, hainbat esparru soziologikotan igar daiteke bere joera; une historikoaren zain, eztanda egiteko. Sistema honen sostengu diren horien guztien ardura da faxismoa, eta bereziki proletalgoaren dominazio kapitalista helburu duen sozialdemokrazia horrena, zeinak, kapitalismoaren aurka ez borrokatzeaz gain, bere baitan nahasten dituen baldintzapen sozial desberdinak, haiei faxismoaren aukera historikoa zabaltzeko. /

KOLABORAZIOA

Faxismoa XXI. mendean. Konparaketa historiko bat

Testua
Beñat Aldalur

Irudiak
Zoe Martikorena

Testu honetan XXI. mendeko faxismo bezala jendarteratzen ari den fenomenoaz arituko naiz. Horretarako, XX. mendeko esperientzia faxistak eta gaur egungoak erkatuko ditut, zenbait aspektu orokorretan; zehazki, mugimendu hauen jatorrietan, ideologia politikoei dagokienean, botere modalitateari eta oinarri sozialari erreferentzia eginez. Amaieran faxismoaren aurkako estrategien inguruan daukadan ikuspegia emango dut. Aurreratzen dizuet antolakuntza komunista indartzean ikusten dudala faxismoaren zabalpenari kontra egiteko proposamen bideragarri bakarra. Esan bezala, artikulu honen asmoa faxismoaren gaira hurbilpen orokor eta ahal bezain politizatuena egitea da. Sarrera testu bat da honakoa, ez ezazue espero ez sakontasun gehiegirik ez zehaztapen maila handiegirik, beraz.

Momentu latzak ari gara bizitzen. Antonio Gramscik zioen bezala, mundu zaharra hiltzen ari da baina berriari asko ari zaio kostatzen agertzea. Modu honetan laburbildu dezakegu gure orainaldia: presente absolutu bat, objektiboki eta subjektiboki. Objektiboki, ez baitago ezer kapitalismoaren menderakuntza totaletik haraindi. Subjektiboki, esperantzarik gabeko jendartea delako gurea, berehalakotasunetik harago begirada zabaltzeko gai ez dena. Hori gutxi balitz, indibidualismoa eta porrotaren kultura errotuta daude euren burua kapitalismoaren kritikotzat duten askoren artean. Gauzak horrela, dominazio burgesari komunismoaren printzipioak kontrajartze hutsak aurreiritzia, mesfidantza eta panikoa eragiten ditu ezkertiar askorengan. Betikotutako orainaldi bezala definitu dut egungo egoera, baina dena ez dago geldi, aunitz gauza abiadura bizian ari baitira aldatzen. Kapitalismoa krisialdi betean dago, eta oligarka internazionalak egoera honetatik onik ateratzeko moldaketa asko ari dira egiten denbora gutxian. Eskasia garaiotan ez dago denontzako baliabiderik, eta horrek klase borroka areagotu eta denon begien bistan uzten du. Gure ikuspuntutik, egungo krisialdia gainditzeko konponbide askatzaile bakarra ekoizpen eredu kapitalista suntsitzea eta jendarte komunista eraikitzea litzateke, baina bistan da burgesia ez dagoela bere pribilegioak alboratzeko prest. Horren ordez, eta bere boterea baliatuta, iraganaren partetzat geneukan totalitarismoa berraktibatu asmoz dabil burgesia. Gaur egungo ultraeskuina hobeto ulertzeko, hau pasa den mendekoarekin konparatzea ariketa teoriko garrantzitsu bezain beharrezkoa dela uste dut. Izan ere, askotan errazkeria gehiegirekin jartzen diogu faxismoaren etiketa ezaugarri autoritarioak dituen edozein fenomenori. Ulertzen dudanaren arabera, autoritarismo eta totalitarismo orok ez daukate zertan faxistak izan beharrik, azken honek bi ezaugarri horiek bere baitan baldin badauzka ere. Korapilo hau askatzeko, ondorengo lerroetan XX. mendeko esperientzia faxistak eta XXI. mendeko ultraeskuina alderatzen ahaleginduko naiz, puntu orokor batzuetan behintzat. Testuan zehar *faxista* terminoa erabiliko dut XX. mendeko talde faxista eta naziak orokorrean izendatzeko. Horrek bien arteko berezitasunak lausotzea ekar lezake, nahiz eta ez den hori testu honen asmoa. Kontrara, bi esperientziek partekatzen dituzten ezaugarriak aipatuko ditut *faxista* izenaren pean, eta bietako baten ezaugarri partikularra izatekotan, hori zehazten saiatuko naiz. Bestalde, Europa mendebaldeko talde eta gertakizunetan zentratuko naiz.



Gure ikuspuntutik, egungo krisialdia gainditzeko konponbide askatzaile bakarra ekoizpen eredu kapitalista suntsitzea eta jendarte komunista eraikitzea litzateke, baina bistan da burgesia ez dagoela bere pribilegioak alboratzeko prest

XX. MENDEKO FAXISMOA

Jatorriak

Hiru jatorri nagusitan laburbilduko dut esperientzia faxista zein nazi ezberdinen iturburua.

Lehenik, antisemitismoaren historia luzea aipatu genezake[1], judutarren *paria* izaerak definitu izan duena. Judutarrekiko mesfidantzaren sorburua askoz ere lehenagokoa izanda ere, antisemitismoa estatu-nazio modernoen sorrerarekin batera berpizten den ideologia da, bi arrazoi nagusik motibatuta: judutarrak herri modura estatu finko bat sortzeko gai ez izatea eta kondaira herrikoietan zeukaten mailegatzaile/espekulatzaile ospea. Espekulatzaile eta konspiratzaile famaren eraginez krisialdi ekonomikoen testuinguruetan errudun bezala seinalatu ohi ziren juduak. Horregatik, bi faktoreak konbinatu ziren garai eta tokietan, Weimarko Errepublikaren kasuan bezala, judutarrekiko gorrotoan oinarritutako ideologia (antisemitismoa) nabarmen hazi zen.

Bigarrenik, inperialismoaren fenomenoa[2] aipatu behar dugu, mendebaldeko potentzia nagusien arteko lehia ekonomikoak ezaugarritu eta Lehen Mundu Gerrarekin leherrarazi zena. Inperialismoa kapitalismoaren fase aldaketari eman zitzaion deitura zen, estatu barneko kapitalisten arteko lehiatik estatu-monopolioen nazioarteko konpetentzia fase batera igarotzeak hartu zuen izena. Mendebaldeko potentzientzat premiazkoa bihurtu zen kapitalismoaren periferiaren gaineko kontrola eskuratzea, eta konkista inperialista hirugarren munduko lurraldeetan kokatu zen. Testuinguru horretan, nazionalismoek gorakada nabarmena izan zuten. Horrekin batera, *faxismo koloniala*[3] bezala ezagutu izan den aginte eredua egonkortu zen herrialde inperialisten kontrolpeko lurralde periferikoetan.

Hirugarrenik, Lehen Mundu Gerra herrialde inperialisten arteko tentsioen muturreko adierazpena izan zen, eta gerratearen emaitzak Europako herrialdeen (AEBekin batera) arteko indar harreman berri bat ekarri zuen. Lehen Mundu Gerrako galtzaileen artean (edo ordainsari murritzegia jaso zutela uste zutenen artean; adb. Italia) irabazleekiko gorrotoa areagotu zen, Versaillesko Itunak inposaturiko neurrien ondotik. Herrialde galtzaileak irabazleekiko dependentzian, zorpetuta eta krisialdi ekonomikoei lotuta geratu ziren. Aipaturiko egoerak eta iraultza komunistak burgesiarentzat suposatzen zuen mehatxuak faxismoaren gorakada eragin zuen.

Oro har, esan daiteke faxismoak garaiko erronkei aurre egiteko soluzio burges, atzerakoi eta ez garaikide bat ekarri zuela, mendebaldeko herrietan iraultza sozialistak ekar zezakeen aurrerakuntza sozialaren kontrara

Ideologia

Puntu honetan XX. mendeko faxismoen hainbat ezaugarri ideologiko komun aipatuko ditut, esperientzia partikularren arteko desberdintasunak aparte lagata.

Boltxebikeen –komunisten– aurkako diskurtsoa eta praktika. Faxisten etsai politiko nagusia komunistak ziren[4], azken horiek bere baitan zituzten zenbait ezaugarriren ondorioz: internazionalistak zirelako, nazionalismoen aurkariak zirelako, Lehen Mundu Gerrako gudaldi abertzalea mespretxatzen zutelako, nazio batasunaren ideia interklasistaren aurkakoak zirelako, orientalistatzat (barbarotzat) zituztelako[5], komunismoa judutarren konspirazio bezala identifikatzen zutelako (batez ere Alemanian) eta klase konposizio ezberdina zeukatelako batzuek eta besteek. Horregatik guztiagatik, diskurtso faxistaren lehen planoan zegoen boltxebikeekiko aurkakotasuna.

Ideologia irrazionalista. Faxismoa

Industria langileen identifikazio positibo batek bere kontrako alde negatiboa ekarri zuen berekin: emakumeen azpiraketa, gutxiengo arrazei gizatasuna kentzea...

eta kontzentrazio-esparruak mendebaldeko arrazoi instrumentalaren goren une bezala interpretatu izan badira ere, bestelako ikuspegi bat eman nahiko nuke. Izan ere, faxismoa arrazoiaren kontrako mugimendua zen, gurutzada irrazionalistaren parte, hain zuzen ere. Horren ezaugarri batzuek honakoak ziren: ideologia gerrazalea, indarrak arrazoia eta egia ordeztea, erlatibismo teorikoa edota populismoa, beste hainbat karakteristiken artean[6].

Obrerismoa. Italiako faxismoaren sortzaileen zati handi bat langile mugimendutik zetorren; tartean sozialista ohiak, anarkistak, sindikalistak eta abar. Alemaniaren kasuan nazien eta langile mugimenduaren arteko harremana ez zen hain estua, baina faxismoek, orokorrean hartuta, langileei zuzendutako diskurtsoa partekatzen zuten: langileria nazionalaren defentsa, elite ekonomikoen inguruko kritika abstraktua eta nazionalismo amorratua. Industria langileen identifikazio positibo batek bere kontrako alde negatiboa ekarri zuen berekin: emakumeen azpiraketa, gutxiengo arrazei gizatasuna kentzea, etab.

Antisemitismoa. Aurrez aipatu be-

Burgesiarekin adostasunetara iristearen ondotik lortu zuten boterea faxismoek, eta momentu horretatik aurrera gizartea errotik aldatuko zutenaren erretorika amaitutzat jo daiteke

Ezin dugu ahaztu faxismo osteen eta neofaxismoen zeregin garrantzitsuenetako bat kapitalismoaren «soberakinak» edo aurkari potentzialak otzan mantentzea dela

zala pisu handia eduki zuen ideologia horrek Alemanian, besteak beste, eta masak mobilizatzeko funtzioa bete zuen nagusiki. Judutarrek mehatxu konspiratzaile eta erasokor baten estereotipoa osatzen zuten nazien diskurtsoan. Masen pultsio erreakzionarioak fikziozko etsai baten, judutarren, aurka batzeko funtzioa eduki zuen ideologia antisemitak[7].

Oro har, esan daiteke faxismoak garaiko erronkei aurre egiteko soluzio burges, atzerakoi eta ez garaikide bat ekarri zuela[8], mendebaldeko herrietan iraultza sozialistak ekar zezakeen aurrerakuntza sozialaren kontrara.

Klase konposizioa eta botere eredua

Klase konposizioari dagokionean, esan daiteke faxismoa erdi mailako klaseko masa mugimendu bat izan zela, oro har[9]. Erdi mailako klasearena, langile aristokraziarena eta lumpen izaera zeukaten bestelako estratuena –soldadu ohi asko, adibidez–. Masa subjektu faxistaren eraketa garaiko mugimendu sozialista eta komunistekin aurkakotasunean garatu zuten, bai kontzeptualki (masak vs klasea) eta bai klase konposizioari zegokionean[10]. Dena dela, burgesiarekin adostasunetara iristearen ondotik lortu zuten boterea faxismoek, eta momentu horretatik aurrera gizartea errotik aldatuko zutenaren erretorika amaitutzat jo daiteke[11].

Botere ereduari dagokionean, erregimen naziek denboran mailakatutako estrategiak erabili zituzten estatuaren kontrol osoarekin egiteko. Bandera faltsuko atentatuak, salbuespen egoeren ezarpena zein plebiszituak izan ziren diktadura ezarri eta egonkortzeko bitartekoetako batzuk. Alderdi bakarreko sistema ezarri zuten, Hobbesen formula (obedientzia babesaren truke) eguneratuta[12]. Langile mugimenduaren aurkako pertsekuzioak –batez ere komunisten kontrakoak– ezaugarritu zituen aipaturiko mugimenduak.

Ekonomiari dagokionean, kapitalisten interesen araberako politika ekonomikoak aurrera eraman zituzten; erregimen faxisten ezaugarri ekonomikoak garaiko herrialde kapitalista demokratikoen antzekoak izan ziren. Besteak beste, Italia faxista zein Alemania naziko ekonomialari ofizialek aurreko erregimen kapitalisten koordenatu berdinetan jarraitu zuten; hori bai, langile mugimendua desagerrarazi zuten eta lehiakortasuna handitu zuten kanpo politikaren alorrean[13].

XXI. MENDEKO «FAXISMOA»

Azken boladan eskuin muturrak izan duen berragerpenari izen ezberdinak jarri zaizkio. Gure buruetara etortzen den lehenengo izendapena faxismoarena da, hau ideia orokor modura ulertuta. Alabaina, gai honetan adituak direnen artean eztabaida dago agerpen «berri» honen ezaugarrien inguruan, baita fenomeno bakarra edo bat baino gehiago existitzen direnaren ustearen bueltan ere. Enzo Traversok egungo eskuin muturraren inguruan darabilen definizioa ontzat emanda[14], bereizketa bat egingo dut neofaxismoaren eta faxismo ostearen artean. Bigarrenak XX. mendeko faxismoekin antzekotasunak baldin badauzka ere, bi proiektuen arteko haustura ideologikoan jartzen du arreta. *Faxista osteko* bezala izendatuko ditut gertatu berri diren gobernu autoritarioak (Trump, Bolsonaro, etab.), zeinak ideologia faxistatik aparte kokatzen diren (ez daukate euren historia aldarrikatzeko asmorik), baina



aginte ereduan antzekotasunak dituzten. Neofaxismo bezala XX. mendeko faxismoekin jarraipen ideologikoan kokatzen diren kaleko adierazpenak izendatzen ditut, batez ere etorkin, proletario eta militante iraultzaileei aurka egiteko antolatzen diren horiek. Azken horien kasuan, XX. mendeko faxismoekiko haustura denborazkoa eta testuinguruarena da batez ere.

Jatorriak

Politikoki interesgarriak iruditzen zaizkidan zenbait ezaugarri aipatuko ditut, komentatu gabe beste hainbat utziko ditudanaren jakitun.

Neoliberalismoaren agerpena eta krisia, bi ardatzetatik begiratuta: ongizate estatuaren desagerpena, horrek berarekin dakarren kapitalismoaren tendentzia autoritarioen gaizkiagotzearekin, batetik, eta norbanako neoliberal berekoiaren irudia errealizatzeko ezintasuna, bestetik. Bi ezaugarriak aldez aurretik ontzat emandako baina guztiz obratu gabeko ideia orokor batzuen menpekoak dira: ideologia estatalista lehenik, eta hedonismo kapitalista, bigarrenik[15]. Bi elementu horien konbinaketatik jendarte autoritario eta konpetitiboaren ideia indartzen da, faxismo ostearen ideologiaren parte dena.

Gerra Hotzaren amaiera, langile mugimenduaren eta sozialdemokraziaren porrota. Askotan esan izan da faxismoa sozialdemokraziaren bete gabeko promesen ondotik indartzen dela. Gaur egun, antzeko zerbait ikusten ari gara. Izan ere, ongizate estatuen kudeatzaile izan diren alderdi sozialdemokratak eta baita ideologia anizkoitzeko hainbat mugimendu ere botere finantzario internazionalekiko guztiz azpiratuta ageri zaizkigu, krisiaren gestore papera euren gain hartuta. Agintza elektoralek sortutako desilusioa eskuin autoritarioaren indargune bilakatzen da askotan. Bestalde, ezkerreko izendapena duten alderdiak dira egun neurri autoritarioak aplikatzen lehenengoak, COVID-19aren murrizketekin ikusten ari garen bezala. Aurreikusgarria da eskuin

muturra salbuespen politiken normalkuntzaz aprobetxatuko dela.

Orain arte esandakoan, eta testuaren estruktura konparatiboa dela aintzat hartuta, XX. eta XXI. mendeetako faxismoen arteko desberdintasun garrantzitsu bat azpimarratuko dut. Lehenengo koiunturan iraultza komunista aukera erreal bat zen eta, aldiz, bigarrengoan «utopia konkretuak» begi-bistatik kanpo daudela dirudi. XX. mendeko faxismoek komunismoarekiko zuzeneko kontrajarreran ekiten zuten, euren marko diskurtsiboa horren adierazle paregabea zelarik. Hori ez da horrela ematen XXI. mendeko faxismoen baitan; alabaina, ezin dugu ahaztu faxismo osteen eta neofaxismoen zeregin garrantzitsuenetako bat kapitalismoaren «soberakinak» edo aurkari potentzialak otzan mantentzea dela.

Ideologia

Gure garaia «*presentista*» bezala izendatu du bat baino gehiagok[16]. Zer esan nahi du horrek? Esperantzarik, utopiarik gabeko presente betiereko bat, non zerbait mugitzekotan, okerrerako den. Testuinguru horretan lurrartzen dute faxismo berriek, atzera eta ez aurrera begiratzen duten sinbologia itxi bat bere eginda. Iruditegi «atzerakoi» horren barnean, bi figura nabarmenduko ditut: «fordismo nazionalarena»[17] eta globalizazioaren aurkako erretorikarena. Bi ezaugarriak *obrerismo* bezala izendatu daitezke, eta diskurtso nazionalista, «abertzale», baten barnean txertatzen dira. Lehenengo puntuak norbere nazioa berrindustrializatzeaz dihardu, bertako langileak pribilegiatzen ditu atzerrikoen aurrean eta burujabetza nazional- estatala dauka utopiatzat. Espazio horretan globalizazioaren kontrako diskurtsoak nazionalismoa justifikatzeko funtzioa betetzen du, eta ez dira gutxi izan euren burua marxistatzat izan eta diskurtso horrekin lerratu diren politikari eta pentsalariak[18].

Aipatu nahiko nukeen beste elementu bat *komunitate nazionalaren* jergarena da. Obreristentzat nazio-estatuetan gauzatzen omen den komunitatearen ideia mundu globalizatuari aurka egiteko aukera errealista bakarra da, baita ustez horren produktua den ezker posmodernoarekin lehiatzeko ere. Horrela, jendarte eredu fordistaren babesle inkontzienteak bihurtzen dira, industria langileak lehenetsiz, familia eredu tradizionala sustatuz, gutxiengo zapalduak baztertuz, etorkinen deportazioa bultzatuz edota nazioaren defentsa interklasista eginez. Langileria nazionalaren ideia jakin bati lehentasuna emanda, euren burua ezker erradikaltzat duten hainbat taldek eskuin muturrarekin bat egiten dute programan eta praktikan.

Langileria nazionalaren ideia jakin bati lehentasuna emanda, euren burua ezker erradikaltzat duten hainbat taldek eskuin muturrarekin bat egiten dute programan eta praktikan

Proletalgoarekiko gorrotoa da egungo talde neofaxista eta faxista ostekoen ezaugarrietako bat. Aurrerago azalduko dudan bezala, aipatzen gabiltzan ideologiak erdi mailako klasearen sektore batean sostengatzen dira. Faxismoaren inkontziente ideologiko garrantzitsuenetako bat indibidualismo kapitalistak sortu baina, aldi berean, bete gabe utzi dituen aspirazioetan identifikatzen dugu. Aipaturiko egoera herritarren arteko konpetentzian eta gutxiago daukanaren aurkako gorrotoaren bidez kanalizatu ohi da. Berekoikeria kapitalista bereziki arriskutsua bilakatzen da proletarizazio egoeretan. Hain zuzen, *atzean gelditzeko beldurrak* klase elkartasuna suntsitzeko joerak errotzen dituenean.

Klase konposizioa eta botere eredua

XX. mendeko esperientzia faxistetan bezalaxe, proletarizatzeko arriskuan dagoen erdi mailako klasea da faxismoaren subjektu eta hartzaile nagusia. Santiago Abascalek dioskun bezala, bera «ez da faxista bat, (erdi mailako) zentzu komunaren eroalea baino». Espainiaren kasuan argiki ikusten da erdi mailako klasearen baitan diskurtso eta praktika faxistek sustraitzea lortu dutela. Adibide bat jartze aldera, hor daukagu Desokuparen kasua, zeina gobernuak baimentzen duen eta erdi mailako klasearen zati baten eskakizunetik abiarazten den[19]. Jakina, burgesiaren zati handi baten babesarekin kontatzen dute aipaturiko taldeek –edo zuzenik burgesiaren parte dira–, hauei ez baitatorkie gaizki langile mugimendua borrokatuko duten taldeen existentzia.

Botere ereduari dagokionean, bi gauza iruditzen zaizkit premiaz seinalatzekoak. Batetik, merkatu kapitalistak edukiz husten baina aldi berean bere bezala aldarrikatzen duen[20] aniztasuna are gehiago zanpatzeko joera erakutsi dute faxismo berriek. Posmodernitatearen kontrakotasunaren izenean langileria zein nazioa identitate positibo bezala betikotzen dituzte, intersekzionalitatearen jerga itzulikatuz, behin horren marko teorikoa ontzat eman eta gero. Esan bezala, kapitalismoa aniztasun errealaren aurkako sistema modura hartzen dugu, eta faxismoa joera homogeneiza-

gailuak bizkortzeko posizio ideologiko modura. Aipaturiko uniformetasuna handitzeko, eta horrekin bigarren puntuari helduko diot, arrazoi ideologikoen eragineko errepresioa areagotzeko funtzioa betetzen du faxismoak. Boterera ailegatu aurretik mugimendu iraultzaileak talde ultren eta poliziaren bidez kolpatuz eta, behin gobernua eskuratu ondoren, euren antagonista guztiak jazarriz. Pluralismo liberala suntsitzeko bi mugimendu sinkroniko egin zituzten faxistek XX. mendean: alderdi burges gehienak euren mugimendu-alderdi-estatu egituran integratzea lortu zuten eta, aldiz, langileriaren antolakundeak ilegaltzat jo eta gogor erreprimitu zituzten.

Errepresio politikoaz gain, faxismoak beste hainbat neurri totalitario dakartza berarekin, hura beste larriak direnak proletalgoarentzat: proletalgoa ekonomikoki are gehiago esplotatzea edota hezkuntzaren, pentsamenduaren eta kulturaren aldebakarreko inposizioak, besteak beste.

ZENBAIT ONDORIO (POLITIKO)

Bi esperientzien arteko konparaketatik ezaugarri bateragarriak ateratze aldera, esan genezake faxismoa kapitalismoaren krisialdi testuinguruan indarra hartzen duen «alternatiba» kapitalista eta interklasista dela. Burgesiarekiko autonomia erlatiboa gorde lezake faxismoak, baina horrek ez du esan nahi funtzionala ez denik lehenengoentzat. Faxismoak proletalgoa erreprimitzeko funtzioa betetzen du, mehatxu iraultzaileari aurka eginez eta proletalgoa otzan, antolatu gabe, mantenduz. Esan dezakegunez, faxismoak krisialdiari erresoluzio erreakzionario bat ematen dio, komunismoaren alderantziz. Egoerak hala eskatuz gero burgesiak zenbait funtzio delega ditzake faxisten gain, tartean gobernuaren ardura.

Faxismoa ideologia politiko gisa XX. mendeko esperientziara mugatzen da gehienbat. Gaur egungo *faxismo osteak* ez du ideologia faxista bere bezala aldarrikatzen. Kontrara, kalifikazio hori errefusatzen du, eta lexiko (neo)liberala darabil bere burua zilegitzeko. Horrela, euren buruak zentzu komunaren ordezkaritzat dituzte eskuin muturraren ordezkari nagusiek. Kontrara, kale mailan antolatutako talde ultraeskuindar eta biolentoek ez daukate problema handirik euren burua faxismoaren esperientzia historikoen oinordeko bezala tratatzeko.

Beharrezkoa zaigu ondo finkatutako militantzia estrategikoa sortzea, faxismoa borrokatu eta garaitzeko inteligentzia, bitarteko eta adore nahikoa izango duena

Sozialdemokraziaren porrota autoritarismo berriei aurre egiterako orduan. Batetik, oligarkia internazionalaren agenda autoritarioa babestu eta inposatzen lagundu dute, ultraeskuinari bidea erraztuz eta horien balizko gobernu totalitario bat aldez aurretik zilegituz. Bestalde, kale mailan ondo finkatutako erantzun ausart eta efektibo baten faltan nekez geldituko da faxismoaren erasoaldia.

Bukatzeko, jendarte kapitalistaren tendentzia autoritarioei orokorrean eta konkretuki faxismoaren ofentsibari aurre egiteko aukera bakarra komunismoa dela uste dut. Beharrezkoa da proletalgoaren antolakuntza independente eta iraultzailea, erdi mailako klasearen praktika autoritarioei kontrajarritako subjektu askatzaile modura ulertuta. Hori guztia egikaritzeko, beharrezkoa zaigu ondo finkatutako militantzia estrategikoa sortzea, faxismoa borrokatu eta garaitzeko inteligentzia, bitarteko eta adore nahikoa izango duena. /

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

1 Hanna Arendt, *Los orígenes del totalitarismo*, Madrid, Alianza, 2020, lehenengo bolumena.

2 Inperialismoaren garaia orokorrean ezagutzeko: Hobsbawm, Eric, *La era del imperio, 1875-1914*, Barcelona, Crítica, 2017. Inperialismoaren irakurketa ekonomiko-politiko baterako: Lenin, *Imperialismo: La fase superior del capitalismo*, Taurus, 2012.

3 Kolonietako aginte kapitalistaren irakurketa azkarra egin eta egungo arrazismoarekin konparatzeko, ikusi Alberto Toscano, *The Long Shadow of Racial Fascism*, Boston Review, 2020. Britainia Handiaren inperialismo sasi demokratikoaren izaera faxista ikustarazteko: George Padmore, *Fascism in the colonies (1938)*, Marxists Internet Archive, 2007.

4 Zentzu gehienetan liburu problematikoa izan arren, eta autorearen ikuspuntu ideologikoa testu honen oso bestelakoa dela jakinda ere, Ersnt Nolteren «gerra zibil europarraren» inguruko liburua gomendatzen dut nazien ideologia anti-boltxebikea (eta baita Nolterena ere, bide batez)

ulertzeko: *La guerra civil Europea, 1917-1945*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica, 2001.

5 Boltxebikeekiko etsaitasuna oso presente dago, besteak beste, Carl Schmitt jurista naziaren obra osoan. Adibide modura: Schmitt, Carl, *El concepto de lo político*, Madrid, Alianza, 2014.

6 Ezaugarri ideologiko hauek faxisten eguneroko jardunean nola funtzionatzen zuten ikusteko, Antonio Scuratiren eleberria gomendatzen dut, Scurati, Antonio, *M. El hijo del siglo*, Madrid, Alfaguara, 2020.

7 Faxismoak pasioak nola erabiltzen dituen ezagutzeko, Samir Gandesha, *A composite of King Kong and a Suburban Barber, Spectres of Fascism*, Pluto Press, 2020.

8 Elia Zaru, *Separar al pueblo de sí mismo. Ersnt Bloch y las contradicciones del populismo*, Comitedisperso, 2016.

9 Alemaniaren kasurako, ikusi Sergio Bologna, *Nazismo y clase obrera*, Madrid, Akal, 1999. Italiarako, 1938ko Angelo Tascaren klasikoa gomendatzen dut: *El nacimiento del fascismo*, Barcelona, Ariel, 2000.

10 Masen eta klasearen arteko bereizketa kontzeptual baterako eta honen garrantzia politikoa ikustarazteko, Andrea Cavaletti, *Clase. El despertar de la multitud*, Argentina, Adriana Hidalgo editora, 2014.

11 Giacomo Marramao, *Racionalización capitalista y solución totalitaria. Lo político y las transformaciones*, Mexiko, Cuadernos de Pasado y Presente 95, 1982 eta Antoni Domenech, *El eclipse de la fraternidad*, Madrid, Akal, 2019.

12 Antonio Gramsci eta Carl Schmitt teorialariek faxismoaren inguruan egin zituzten irakurketen kontrapuntu baterako, Ricardo Laleff Ilieff, *Lo político y la derrota*, Madrid, Guillermo Escolar editores, 2021.

13 Aurretik aipaturiko Marramao eta Domenechen testuetara bueltatzen naiz. Irakurle sutsuentzako, erregimen naziaren ekonomia modu zehatz batean aztertzen dituzten liburu «erraldoi» hauek gomendatzen ditut: Franz Leopold Neumann, *Behemoth*, Madrid, Anthropos, 2014 eta Adam Tooze, *The wages of destruction*, London, Penguin Books, 2008.

14 Enzo Traverso, *Las nuevas caras de la derecha*, Argentina, Siglo XXI, 2019.

15 Neoliberalismoaren historiara gerturapen bat egiteko, David Harvey, *Breve historia del neoliberalismo*, Madrid, Akal, 2007.

16 Adibidez, Enzo Traverso, *Melancolía de izquierda*, Barcelona, Galaxia Gutenberg, 2019.

17 Alberto Toscano, *Notes on late fascism*, Historical Materialism website, 2017.

18 Euren artean ezaugarri ezberdinak eduki arren, honakoak datozkit burura: Manolo Monereo eta Frente Obrero antolakundea Espainian, Diego Fusaro eta Costanzo Preve Italian, beste askoren artean.

19 Desokuparen ezaugarri (neo)faxisten eta erdi mailako klase konposizioaren justifikazio baterako, Alain Arruti, *Parlamentuz kanpoko kale-erakunde faxistak: Desokuparen kasua*, Gedar Langile Kazeta, 2021eko ekainaren 6an.

20 Pier Paolo Pasolini, *El artículo de las luciérnagas (1975).*

ETXEBIZITZAREN AUZIA IPAR EUSKAL HERRIAN

Testua
Maddi Sarasua

1970eko hamarkadan «Euskal Herria ez da salgai» lema ezker eskuin agertu zen Ipar Euskal Herrian. Kanpotiar burgesek erosiriko etxeen problematika beti egon da presente, baina duela hilabete batzuk, berriz ere, kezkaz eta kritikaz, denen ahotan dabil etxebizitzaren auzia; kolektibo desberdinen partetik, salaketak, ekintza sinbolikoak edota mobilizazioak ugaritu dira. Auzi horren inguruan jardungo dut bada, ondorengo lerroetan.

EGOERAREN AURKEZPENA

Euskal Hirigune Elkargoak (EHE) bildutako datuen arabera, Ipar Euskal Herrian dauden etxebizitzen %21a bigarren egoitzak dira, eta %7a dira hutsik dauden etxebizitzak. Horren aurrean baina, urtero 2.700 etxebizitza gehiago egiteko xedea agertu du Euskal Elkargoaren Tokiko Etxebizitza Planak. Hauetatik 1.200 lirateke etxebizitza sozialak. Horrek, Ipar Euskal Herriko etxebizitza sozialen kopurua %50 emendatuko luke.

Planak berak, egoera nolakoa den ohartzeko balio digu. Alde batetik, etxebizitza eskaria izugarria da. Bestetik, etxebizitza sozialen beharra ere anitz emendatu da. Elkargoaren etxebizitza programa lokalak prekarietatearen emendatzea azpimarratzen du: biztanleriaren %72ak etxebizitza sozial bat ukaiten ahal luke. Ipar Euskal Herriko familien %17a pobrezia heinetik behera bizi da (2015eko datua, posible da hau emendatu izana).

Pandemiak aurretik zetozen joerak bizkortu dituela erran izan dugu maiz, Ipar Euskal Herriko etxebizitzaren auzian ere, ezbairik gabe, horrela izan da. Hetsaldi edo murrizketa garaia hiriko pisu txikietan igaro duen orori sartu zaio mendi eta itsaso arteko herri txiki lasaietara joateko antsia. Ezin sinetsiko jende uholdea izan genuen joan den udan, sekula baino jende gehiago mendietan, ostatuetan, inguruetan... Horrek bigarren buelta izan du, eta higiezin agentzietako eskari gorakada izugarria izan da. Poltsikoak ahalbidetzen dion edonorentzat paradisiakoa da, etxea, bigarren etxebizitza edo jubilatzeko etxea hemen erostea. Burgesiaren leku maite ere bihurtu da hau eta hemen dirutza uzteko prest dauden bezero ugari ikusten dituzte hemengo enprendedoreek. Langileentzat eskuragarriak ez diren prezioetako ostatu, hotel edo aisialdiaren emendatzea erran nahi du horrek.

Azken hilabeteetan, etxebizitzen prezioen igoera %20-30 artekoa izan dela salatu da. Horrekin batera, luxuzko etxebizitzak saltzen dituzten agentzien salmentak pandemiaren urtean %30 emendatu dira (Miarritzen eta Donibane Lohizunen bulegoak dituen Barnes taldeko kudeatzaileak aitortua 2021eko neguko perspektibak agirian). Baionan eta Bidarten izan dute etxebizitzek prezio igoerarik handiena (Etxalde elkarteak 2013tik 2020ra apartamendu eta etxeen prezioak aztertu ditu Frantziako Gobernuko datuak oinarritzat hartuz). Baionan apartamentuen prezioa %49 igo da eta Bidarteko etxeena aldiz, %125.

Testuinguru honetan, prezio bereziki altuak prentsako lehen orrietan agertu dira eta salaketa jasa ekarri dute. Hala nola, Miarritzen, metro koadroa 40.000 euroan saldu zen luxuzko apartamentua, (higiezinen agentzia batek urte hastapenean aurkeztutako txostenean jakitera eman zenez), edota, 18,9 milioi eurotan salgai zen Bidarteko itsasertzeko etxea.

Ipar Euskal Herriko biztanleen %72ak etxebizitza sozial bat eskura dezakeen testuinguruan, asaldura sortu dute kanpotar burgesei bideratutako etxeen prezioek. Ipar Euskal Herrian eraikitzen diren etxebizitzen %70 bertakoak ez diren pertsonei saltzen dizkietela salatu da. Horren parean, azpimarratzekoa da bi azken errolden arabera (2012an eta 2017an eginak), adibidez, Hendaiak, Donibane Lohizunek eta Miarritzek biztanleak galdu dituztela.

Prezioen gorakadako joera honek ez dirudi etenik izanen duenik. Kostaldean bigarren etxebizitza gehiago izanen dira, eta jada garestiak diren etxeek geroz eta prezio goragoa izanen dute. Ondorioz, bertako langileak kostaldetik uxatuak izanen dira eta barnealdean aurkitu beharko dute etxebizitza merkeago bat, lana kostaldean ukanik ere. Kostaldean, Ipar Euskal Herriko biztanleriaren %60a bizi da gaur egun. Kopuru hori barnealdera joaten bada, laborantzako lurrak galduko dira.

UGARITU DIREN SALAKETAK

Hastapenean erran bezala, joera honen aurrean, salaketa ekintzak ugaritu dira azken garaietan. Hala nola, urte hasieran, Bidarrain mendiko etxe baten murruetan margoketak agertu ziren salmenta salatuz: «600.000 euro? Aski da!» eta «Ez dugu onartzen, guk ere EHn bizi nahi dugu». Urruñan aldiz, martxo bukaeran, sareetan eta medio estataletan biralak egin ziren pankarta batzuk ezarri zituzten: «Parisiens, rentrez chez vous. Vous êtes le virus du Pays Basque. Alde Hemendik». Pazkoko asteburuan zehar, Getarian eta Hendaian pintaketak agertu ziren, «Etxe hutsa = etxe librea» edo «Guk ere hemen bizi nahi dugu» eta «Stop turismoa» bezalako mezuekin.

Apirilaren 10ean, EH Baik elkargoaren Tokiko Etxebizitza Plana salatu zuen elgarretaratze batekin. Eta ondotik adibidez, Donibane Lohizunen etxebizitza salmenta iruzurtia edo Hiriburun higiezin agentzia baten publizitatea salatu dituzte, departamenduko hauteskundeetarako hautagaiak lehen lerroan agerraraziz. Geroztik, herri sarreretan bigarren etxebizitzen eta etxe hutsen kopuruak

Kostaldean bigarren etxebizitza gehiago izanen dira, eta jada garestiak diren etxeek prezio goragoa izanen dute. Ondorioz, bertako langileak kostaldetik uxatuak izanen dira eta barnealdean aurkitu beharko dute etxebizitza merkeago bat, lana kostaldean ukanik ere

afitxatu dituzte. EH Baik Elkargoaren egoitzaren aitzinean elgarretaratu eta egun batzuetara, Gazte Ekintza-Action Jeunes taldea sortu zen, Aitzina antolakunde ohiko kide batzuek eta Baionako *Friday For Future* mugimenduan parte hartu zuten hainbat gaztek osaturik. Bi etxebizitza agentzietan afitxak jarri eta banderolak atxiki zituzten eta Ezpeletan elgarretaratze bat egin dute, *Airbnb*ak eta etxebizitza turistikoak salatuz, «Euskal Herrian Bizi nahi dugu» lema pean.

Horrez gain, Bastidako etxalde baten salmenta prezioa bi urtetan %78 igo dela salatu zuten Lurzaindia eta ELB sindikatuak, ez zela gehiago laborari batentzat erabilgarri izanen eta jabeak ahal bezainbat diru ateratzeko salduko zuela. Hendaiako gaztetxeak ere etxebizitzaren inguruko kanpaina bat abiatu du. Afixa kolaketak, mintzaldiak eta ekintzak aurreikusi dituzte. Geroztik BAM taldea ere sortu da, eta «Ez da salgai» lema idatzirik zuen banderola erraldoi bat zabaldu zuten maiatzaren 13an Biarritzeko itsasbazterrean. Aste bat geroago, Donibane Lohizuneko camping *herrikoi* baten lekuan burgesentzako camping bat ezartzea salatu zuten, baita oraingo campingean bizi den batek jasandako erasoak ere.

SALAKETEN MUGAK

Interesgarria da salaketa horietan erabili diren lema edo diskurtsoak aztertzea. Esaterako, Lurzaindia eta ELB sindikatuak eginiko elgarretaratzean «gazteei etxea bermatu nahi diegu, gure ingurukoei etxea bermatu nahi diegu» bezalako adierazpenak egin zituzten. Gisa berean, Peio Etxeberri Aintxart EH Baiko hautetsiak honela bukatzen du *Enbata*ren azken alean idatziriko iritzia: «Horien bigarren etxebizitzek gure haurren exilioa balio ote dute?» Orain arte etxebizitza aukera bermatua zuten klase ertaineko familiek kezkaz bizi dute euren seme alaben ahal ekonomikoen beherakada, ezin eurek izan duten bezalako etxebizitzen jabe izateko aukera bermatzea. Bestalde, ELBk eta Lurzaindiak ohartarazpen bat ere egin zieten higiezin agentziei, notarioei eta erosle espekulatzaileei: «Euskal Herria ez da aberatsentzat jolasteko lurra». Zer gaitasunekin egikaritzen da ohartarazpen hau? Euskal Herria bada burgesentzat jolasteko lurra, mundu osoa den bezala, sistema kapitalistak dirauen bitartean, burgesek nahi dutena eginen dute, bai lurrarekin, baita bertako biztanleekin ere, gizarte modu honen aurkako antolakuntza batek hori ekiditeko aski gaitasun izanen ez duen artean behintzat.

Bestalde, «espekulazioaren aurrean posizionatzeko» galdegin diete hautetsiei ELB sindikatuak eta Lurzaindia elkarteak. Baina espekulazioa berezkoa zaio sistema kapitalistari. Horri aurre egiteko gaitasunak eskuratzen aritu baino, gaur egungo sistema ekonomikoa ahalbidetu eta boteredunei boterea bermatzen dien sistema politikoaren baitako alderdiei posizionatzea galdegiten zaie. Posizionatzeak zer ekartzen du baina, aldarrikapen horiek euren zerrendetan eta jendea eurentzat bozkatzera bultzatuko duen mobilizazio edo ekintzetan sartzeaz gain?

Adierazgarria da, lema edo adierazpenak nori zuzentzen zaizkien aztertzea. Gazte Ekintzak erabili duen «Lurra behin saldua, betiko galdua!» lema adibidez, lur jabe direnei zuzentzen zaie. Honi loturik, «gu ere bagira errudun, bertakoek, euskaldunek dugu saltzen» errepikatzen da hainbatetan. Auzia ez da saltzen dutenak, frantsesak edo euskaldunak diren, bertakoak ala kanpotarrak diren. Saltzen dutenak jabeak dira eta merkatu legeak agindu bezala, ahal bezain garesti saldu nahi dute, beraz, prezio horretan erosteko gai denari salduko diote.

Kanpotarrak *per se* etsaiak bezala ikusaraztera eramaten du zapalkuntzaren ulerkera sinplifikatuak, hortik, Urruñako «Paristarrak itzuli zuen etxera. Euskal herriaren birusa zarete» banderolak *bertako vs kanpotiar* dikotomia ezartzen du. Baina zein Paristarrez ari gara? Paristar batzuek hemengo hainbat pertsonek baino zailtasun gehiago dituzte etxebizitza bat lortzeko.

Argi dago, etxebizitzaren auzi honek ondorio kultural azkarrak dituela, seinalatu beharrekoak.

Turismoaren eskutik edota etxebizitzak alokatu edo salduz dirua egiteko irrika ondorio kultural argia da. Euskal kulturaren folklorizazioa ere bai: espresio kultural oro testuinguru sozialetik at baliatzea, etekin ekonomikoa erauzteko perspektibarekin erabiltzea. Euskara ez dakiten edo ikasiko ez duen jende uholdeak ere ondorio latzak dakartza euskal hiztun komunitatearentzat, urtez urte euskal hiztun kopurua apaltzen ari den lurraldean.

Hendaiako Enbata Gaztetxeak turismora zuzenduriko ekonomia «inposatua» salatu du. Euskal Herria Frantziako Estatuko eskualde bat bezala aurkeztua dela eta, euskal kultura «produktu gisa saldua, euskal nazio kontzientzia kaltetuz». Egoera honekin, promotoreak, hedabide frantsesak, turismo agentziak eta Frantziako Estatua bera irabazle ateratzen direla azpimarratzen dute.

Sistema kapitalistan produktu kultural oro da «saldua» boterean direnen mesedetara. Euskal nazio sentimendua indartzeko balio dezakete Hendaiako gazteek egindako adierazpen horiek, baina kasu honetan, oinarrian dagoena ez da euskaldunak garelako zapaldu nahi gaituztela, burgesak direlako dirua egin nahi dutela baizik.

Berriki sortu den BAM taldeak irakurketa hau egin du : «Bi arazoren aitzinean aurkitzen gira: lehenik, arazo kulturala. Euskal herritarrak Euskal Herritik kanpo bizitzera beharturik gira. Bigarrena, klase arazo bat da. Euskaldunok eta erdaldunok hunkituak gira. Klase popularrek ezin dute hemen bizi eta uxatuak dira pixkanaka-pixkanaka, eta ordezkatzen duena klase burgesa edota ultra-burgesa da». Arazoaren bi aspektu aipatzen dituzte, nahiz eta arazo beraren ondorioak diren. Sistema kapitalistan burgesiak du non eta nola bizi aukeratzeko gaitasuna, eta langileria ahal duen lekuan ahal bezala biziko da.

Legedia burgesak horrelako lege mugatzaileak debekatzen ditu, bai Frantziako Estatukoak, bai EBkoak. Izan ere, merkatuak du politika zuzentzen. Sozialdemokraziaren xedea legalitatearen baitan gauzak aldatzea denez, aldarrikapen horiek guztiz utopiko gelditzen dira

PROPOSATZEN DIREN ATERABIDEAK

Diskurtsoez iruzkin zenbait eginik, aterabideei so egin diezaiegun. Bigarren etxebizitzei zergak igotzea da proposatzen den aukera bat. Baina neurri horrek aberatsenei ez die eragiten, arazorik gabe ordain baititzakete zerga gehiago. Bigarren etxebizitzak debekatzea litzateke muturreko erabakia, beharrezkoa, arazo horrekin bukatzeko. Baina dudak ditut Kantabrian edo Bizkaian adibidez, edo mendian borda bezala, bigarren etxebizitza bat duten klase ertaineko politikariek neurri hori hartuko dutenik. Dena den, legedia burgesak horrelako lege mugatzaileak debekatzen ditu, izan Frantziako Estatuko legedia zein Europako Batasunekoa. Izan ere, merkatuak du politika zuzentzen. Sozialdemokraziaren xedea legalitatearen baitan gauzak aldatzea denez, aldarrikapen horiek guztiz utopiko gelditzen dira.

Kortsikan adibidez, aterabide bezala, erresidentzia estatus bat proposatu izan dute, Kortsikan etxebizitza bat eskuratzeko bost urtez han bizi behar duzula diona. Hau, bistan dena, ez da eragozpen bat bost urteez alokairua ordaindu dezakeen burges batentzako. Estatus horren aldeko borrokak Kortsikar langileria eta burgesia nazionalistaren arteko aliantza bat suposatzen du, nazionalismo etnizista elikatuz, munduko langileriarekiko klase batasuna sustatu ordez. Dena den, lehen erran bezala, neurri hori debekatua izan zen Frantziako Konstituzioaren kontra eta Europar Batasunaren legediaren kontra doalako.

Etxebizitza sozialen kopurua emendatzea ere proposatzen da. Hendaia Biltzen taldeak, adibidez, etxebizitza sozialen kopurua %40tik %60ra eramatea proposatu du. Hobekuntza txiki bat bada ere, horrek ez du inolaz ere desparekotasun ekonomikoen arazoa konpontzen.

Bada elkarte bat Ipar Euskal Herrian, etxebizitzaren arazoari alternatiba gisara aurkezten dena: Etxalde. 2005etik etxebizitzak kolektiboki erosi eta ondotik hauen bizi osoko erabilera proposatzen die elkartekideei, alokairu bat ordainduz. Gisa horretan herritarrak babestuak dira, ez direla etxe horretatik kanporatuak izanen. Etxaldek azpimarratzen du, horrela, etxebizitzak ez direla «merkatu zabalean salduko» eta «sistema baten aurka ari direla», helburua izanik, Etxalde bezalako milaka elkarte sortzea. Bi arazo hemen, batetik oso eros ahalmen txikia dute, eraikin biziki guti eskuratzea lortu du Etxaldek 15 urtez. Bestetik, hainbat eta hainbat urtez alokairua ordaindu lezaketenentzat bakarrik da aukera. Ez du inongo gaitasunik merkatu globalaren funtzionamenduari alternatiba errealik eskaintzeko.

Etxebizitzaren arazoari bere errotik heltzea sistema kapitalistaren funtzionamendua zalantzan jartzea da, eta gure borroka horri aurkakotasunean antolatzea. Iraultzailea izan behar du proposamenak, eraiki nahi dugun gizartearen forma eraman behar du bere baitan

ONDORIOA

Sistemaren ulerkera eskasa nabari da bai diskurtsoetan baita proposaturiko aterabideetan ere. Horregatik dira aterabide biziki partzialak edo utopistak. Askotan subjektibistak dira, lurra kanpotar bati saltzen dionaren edo udan etxea *Airbnb*n ezartzen duenaren aurka egiten dituzte salaketak, arazoa sistema delarik. Haatik, etxebizitzaren gaur egungo egoerak gehien kolpatzen dituenak ez dira horien eros ahalmena ttipitzen ikusten duten klase ertaineko familietako gazteak; aterberik ukan ezin dutenak, etorkinak edota etxetik kanporatuak direnak baizik. Atherbea eta Baionako PAJ guneko langile batek, joan den hilabetean prentsari azaldu zionez, hogei bat pertsonek egunean zehar lan egin eta gaua autoan pasatzen dute Baionan. Milaka etorkin iristen dira hona, lanik gabe, aterberik gabe, hemen egoteko eskubiderik gabe. Dirurik eta paperik gabe, ez dira ezer gizarte honetan.

Aste honetan agertu da *Sud Ouest* egunkarian, Kanbon bi haur dituen ama bat etxetik botako dutela hilabete honen amaieran. Ez du alokairurik lortzen ahal kontratu mugatua duelako eta 2020ko otsailetik ari da etxebizitza sozial bat eskatzen. Kanboko auzapezak adierazi duenez 50 pertsona omen dira, emazte hau bezala, etxebizitza sozial merke bat eskuratzeko itxaron zerrendan.

Ez dira zapalduenak hasiko 700.000 euroko etxe baten prezioa salatzen, teilatu baten xerka baizik. Horientzat balio duen aterabide bat proposatzen ez badugu, ez gabiltza arazoa konpontzen. Aterperik ukan ezin duen eta hamar etxe dituenaren arteko aldea ezin da konpondu kapitalismoaren baitan. Oinarrizko beharrizanak merkatuaren menpe diren artean ez da justiziarik existituko. Burgesiak nor-nola biziko den erabakiko duen artean, ezin da berdintasunik izan. Hortaz, etxebizitzaren arazoari bere errotik heltzea sistema kapitalistaren funtzionamendua zalantzan jartzea da, eta gure borroka horri aurkakotasunean antolatzea. Iraultzailea izan behar du proposamenak, eraiki nahi dugun gizartearen forma eraman behar du bere baitan.

Merkatuaren baitan burgesiaren kontrolpeko espazio direnak, okupazioaren bidez langile kontrolpeko espazioak bihurtzea da horretarako bidea, orokortasuna antolatuko duen jendarte eredu hobearen gaitasunak garatzen ditugun bitartean. Etxebizitzari dagozkion arazoak, sistema kapitalistaren arazoak dira eta sistema hau iraultzeko estrategiaren baitan baizik ezingo diegu arazo horiei eraginkorki heldu. Baditugu jadanik esperientzia praktikoak bide erakusle, hainbat gune sozialista ideki dira, antolakuntza komunista indartzera bidean. Ikusi dugu Erraki eramaten ari den langile kontrolpeko espazioen defentsa, baita Gasteizko Etxebizitza Sindikatuak hainbat langilerentzat antolakuntzaren bidez etxeak nola lortu eta defendatu dituen, gero eta gaitasun gehiago eskuratuz.

Baina horren parean, ikusten dugu burgesiak okupazioaren legea nola zorroztu nahi duen Frantziako Estatuan. Okupatzaileentzat zigorrak gogortu nahi dituzte, 15.000 euroko isuna eta urtebeteko kartzela zigorra. Horrez gain, prozedura azkarragoa da orain prefetaren bidez hogeita lau ordu dituzte okupatzaileek beren kabuz joateko, okupaturikoa bigarren etxebizitza den kasuetan ere.

Badaukagu zer borrokatu. Bidea luzea da oraindik eta etsaia indartsua, baina zentzu onean bideratutako langile antolakuntzarentzat deus ez da ezinezkoa. Eta onena egin nahi dugu posible. /

ERREPORTAJEA

FRANKISMOA, FAXISMOA ETA FAXISTATZEA

Testua
Jon Kortazar

Ilustrazioak
Edu Vidiellaren artxiboa

Francisco Franco diktadorea
Juan Vigón Suero-Diaz koronela
agurtzen (Reinosa, Kantabria)

Faxismoaren gaien inguruan, Espainiako erregimenak historialarien artean ekarri izan ditu zenbait eztabaida, bertako *sui generis* «faxismoa» zela eta. Kamarilla militar batek, estatu kolpe bat eta guda zibil bat tarteko, alderdi faxista ahul bat boterera eramanda –eta hori elementu afaxistekin eta karlistekin batuta– sortutako erregimen hibrido bat izan zen, Munduko Gerraz haraindi iraun zuena, oportunismo politikoa, egokitzeko gaitasuna, barne errepresio bortitza, aldeko masa mobilizazio txikia baina –errepresioaz paradoxikoki–, herritarren aldetik «tolerantzia» oso handia izan zituena. Hori dela eta, erregimen horren eta faxismoaren arteko harremana (faxismoa ideologia bezala edo ideien ontologiaren esparruko zerbait gisa hartuta) kokatzeko moduak eztabaida historiografiko handiak piztu izan ditu. Idatzi labur honetan harreman horretaz arituko gara, batez ere, frankismoaren aurreko garaian gerora erregimen hori osatu zuten elementuen «kohesionatzeaz» eta horiek faxismoarekin izan zuten sinbiosiaz.

Espazio falta dela eta, ezin izango dut gaia nahi nuen moduan garatu. Hainbat gairen inguruko gakoak emango ditut, alor bakoitzean dauden eztabaidak eta posizio ezberdinak aurkeztuz (edo behintzat saiatuz), irakurleak hurbiltze-tresna gehiago izan ditzan. Eztabaida politiko gaurkotar edo gaurkotiarrek askotan zikintzen duten gai bat izanik, argibide batzuk eman nahi ditut. Beraz, artikulu hau, nolabait, «sarrera» moduan ulertu beharko da; hau da, interesa duen irakurleari sakontzeko aukera eta nolabaiteko gidalerroak emango dizkiogu.

SARRERA: FAXISMOAREN EZAUGARRI DESKRIBATZAILE NAGUSIAK

Faxismoren izaeraren eta eboluzioaren gaineko eztabaida luzea izan da beti. Hein batean, eztabaida hori faxismoa historizatzeko zailtasunak ekartzen du, ideologia horrek sortu berritan hartu baitzuen boterea (1922an Italian, eta alderdi bezala 1919an sortu zen), oraindik *corpus* ideologikoa definitu gabe zuenean. Horrek zaila egiten du, epistemologikoki, «ideologia berezkoa» eta «haren zirkunstantziak» modu garbi batean bereiztea.

Faxismoaz fenomeno historiko bezala ari garenean, lehenbizi egin behar duguna, «ankerkeria huts» bezala definitzeari uztea da. (...) Faxismoa ankerkeria da, baina «beste zerbait» ere bada

Faxismoaz fenomeno historiko bezala ari garenean, lehendabizi egin behar duguna da «ankerkeria huts» bezala definitzeari uztea. XIX. mendeko inperialismoak, Parisko Komuna zapaldu zuten versallestarrak, Errusiako Armada Zuria edo egungo Al-Qaeda oso ankerrak izan zitezkeen/daitezke, baina horrek ez ditu faxista bihurtzen. Berdina gertatzen da XX. mendeko guden arteko diktadura autoritario askorekin (frankismoa hala ote zen hemen aztertuko dugu). Faxismoa bada ankerkeria, baina «beste zerbait» ere bada.

Faxismoari buruzko bi eskola nagusi izan dira. Batek, eskola liberalak, faxismoa azaletik deskribatu du, «totalitarismo» hutsa baitzen. Eskola horretako buru Hannah Arendt ezaguna dugu[1]. Hori, batez ere, *ad hoc* deskribapen bat zen; Gerra Hotzekoa, «totalitarismoak» erkatzea eta horixe «demokraziarekiko» (liberala, burgesa) antagonismoan jartzea. Definizio horrek faxismoaren zenbait ezaugarri –agintekeria, eraldaketa, ultranazionalismoa, ultraestatismoa, populismoa, mobilizazioa– deskribatzen baditu ere (faxismoaren «izatea» edo «zer» de-

Marcia su Roma (Erromarako Martxa, Italia)

lakoa), hain zuzen ere, beste galdera batzuei txiri egitean –«nork», «zergatik», «zertarako», «noiz»– azalpena, politikoki manipulagarria izateaz gain, antihistorikoa ere bada. Ez du azaltzen faxismoa eragin zuen subjektu nagusia ez eta zein testuinguru sozialetan iritsi zen boterera; zerk erraztu zion bidea. Klase sozialen dialektika berariaz at uzten duen analisi bat da.

Eskola marxista dugu bigarren eskola, agian, Clara Zetkinen (1923) eta Georgi Dimitroven (1935) formulazio ezagunetatik abiatutakoa. Zetkinek faxismoaren zenbait ezaugarri bildu zituen 1923an idatzi zuen *Faxismoa*[2] lanean, gerora ikerlari guztiek errepikatu zituztenak: faxismoa burgesiaren tresna bat da («zergatik?»), krisi garaietan («noiz?») sortzen dena, eta Izu Zuria baino zerbait gehiago dena. Beraz, faxismoa eta bestelako autoritarismoak bereizteko modua eskaini zuen. Zetkinen arabera, faxismoak demagogia eta populismoa –«ordena burgesarentzat arriskutsuak diruditen elementuak»– erabiltzen ditu, nahiz eta «atzerakoien kontrol pean» izan. Hortaz, faxismoaren «ordenako» eta «intsurrekziozko» bi arimen arteko nahasketa aipatzen du. Zetkinen esanetan, faxismoa burgesiaren (ordenaren) eta «atsekabetuen» (hau da, sozialdemokraziaren porrotaz atsekabetutakoen) arteko koalizio moduko bat da. Beraz, horretan, gero Poulantzasek jarraituko zuen ildoarekin bat egingo du: krisi momentuan ernaltzen da faxismoa, baina ez «arrisku iraultzailearen gorakada» momentuetan, baizik eta hori «pasatutakoan»; hots, langileriari zetorkion zigorra litzateke. Zetkinen artikuluan harriga-

Zetkinek faxismoaren zenbait ezaugarri bildu zituen 1923an idatzi zuen *Faxismoa* lanean, gerora ikerlari guztiek errepikatu zituztenak: faxismoa burgesiaren tresna bat da («zergatik?»), krisi garaietan («noiz?») sortzen dena, eta Izu Zuria baino zerbait gehiago dena

rriena, dena den, faxismoaren eta nazionalismoaren arteko loturez hitzik ez egitea izan zen, agian. Hura ez zuen aipatu faxismoaren ezaugarri gisa.

1935ean, III. Internazionalaren bosgarren Biltzar Nagusian, Georgi Dimitrov bulgariarrak ere aipatu zuen faxismoa[3]. Garai horretan, gerra berri baten arriskua nabaria zen, beraz, Dimitrovek nazionalismo oldarkorra gehitu zuen faxismoaren ezaugarri gisa. Faxismoaren mobilizazio gaitasuna aipatu zuen hark ere, hau da, edozein erregimen atzerakoi ez zela faxista halabeharrez. Bestetik, populismoa aipatzeaz gain, faxismoaren boterera igotzeko teknikak aztertu zituen, hau da, demokrazia burgesaren talde ezberdinekin egindako koalizioak (adi puntu honi aurrerantzean), baita bestelako ezaugarriak ere; adibidez, ekonomia korporatibista eta klase borroka suntsitu nahi izatea.

Gerora, Zetkinen eta Dimitroven lanak findu dituzte marxistek. Horietako bat da Nikos Poulantzas[4]. Estrukturalista zen Poulantzas, eta Estatuaren hainbat aparatu ideologikoren azterketatik abiatzen zen. Beraz, faxismoak Estatua lortu aurretik eta Estatua «konkistatu» ostean (hau da, era berean estatu burgesaren tresna bezala jokatzean, baina baita ere Estatu burges hori «eraldatu nahi» izatean) nola jokatu zuen aztertu zuen. Hau da, faxismoa egon dadin, boterera iristeko fase batzuetan, ez du eskuineko beste sektoreekin koalizioak sortzeko aukera baztertzen. Garrantzitsua da hori, gero, frankismoari dagokionez, historiagile batzuek frankismoaren «eskuindarren arteko koalizio izaera» hori faxista izan zela ukatzeko erabiliko baitute. Beste alde batetik, Poulantzasen arabera, faxismoa ez zen boterera iritsi arrisku iraultzailea puntu gorenean zegoen garaian, baizik eta horren ostean. Burgesiak, hain zuzen, politikoki gailendua izan zen proletalgoaren aurrerapen sozial edota ekonomikoak ezabatzeko erabili zuen, Italian 1922an (kontuan izan 1921ean bukatu zela «Biurteko Gorria») eta Alemanian 1933an (1923an bukatu zen altxamenduen aroa).

Eskola marxistak zenbait galdera ezinbestekori erantzuten die: «nork» edo «nortzuk», hau da, burgesiak bur-

Nazien desfile militarra (Alemania)

Dimitrovek [...] populismoa aipatzeaz gain, faxismoaren boterera igotzeko teknikak aztertu zituen, hau da, demokrazia burgesaren talde ezberdinekin egindako koalizioak, baita bestelako ezaugarriak ere; adibidez, ekonomia korporatibista eta klase borroka suntsitu nahi izatea

gesia ttipia mobilizatuta; «noiz», krisi politiko baten garaian –hemen ñabardura batzuk baditugu-; «nola», masa mobilizazio handi baten bidez; eta batez ere, «zergatik» eta «zertarako». Krisi politiko eta soziala ematen den garaian burgesiaren ordena salbatzeko karta bezala erabiltzen du faxismoak, «arrisku iraultzailea» ohiltzeko; bestetik, Lehen Mundu Gerrak ekarri zuen krisiaren garaian, Estatu-kapitalismoaren modalitate oldarkor bat izan zen «atzean geratu» ziren burgesientzat –Italiakoa zein Alemaniakoa–, modernizazio azkarra eman zedin (Jenö Vargaren tesia). Eskola horrek hainbat bertute ditu; kasu honetan, faxismoa subjektu historikoekin harremanetan jartzea (burgesiak ernaldutako kume moduan), horren botererako urratsak eta teknikak aztertzea eta zergatiak azaltzea. Hala ere, eskola horrek badu nolabaiteko hutsune bat, zori hobearekin edo okerragoarekin bete duena: faxismoaren autonomia historikoa beheititzeko joera dauka –hau da, hura «Beste» goren baten esku dagoen txotxongilo huts gisa aurkezteko joera–, inork inoiz bere kabuz halako proiektu ideologiko batean pentsatu ez balu bezala; halako proiektu ideologiko batek berezko eboluziorik izango ez balu bezala. Hots, «nork» galderari ondo erantzuten dio klase sozialei so eginda, baina ez beti mugimendu faxistari berari subjektu bezala so eginda; subjektua alde batera utziz gero, Zetkinek salatutako akatsean eror gaitezke, hau da, «faxismoa» eta «Izu Zuria» nahasteko akatsean.

Zenbaitek «garaiarekin» –«noiz» galdera– lotzen dute, adibidez, Karl Polanyik. Haren arabera, faxismoa gerra osteko burgesiaren *aggiornamento* programa bat litzateke. Ikuspuntu hori, zeina hungariar ere den Vargarenarekiko nahiko hurre dagoen, merituzkoa da; izan ere, faxismoak garai historiko batekin eta horren inguruabarrekin izan zuen harremana deskribatzen du, hau da, hura historizatzeko aukera ematen digu. Azken ikuspuntu horren ahuldaderik handiena, 20ko eta 30eko hamarkadetako eskuineko erregimenen gama oso bat «faxista» izendatzean zetzan. Baina baditu bere bertuteak ere, adibidez, «garaiarekin» lotzen baita; gerora, Nolte goiztiarrak errebisionismoan erori aurretik egin zuen moduan. Polanyik aitortzen zituen marxismoaren eskolaren nolabaiteko ekarpenak, esaterako, faxismoa boltxebismoarekiko erreakzio bat zela esanez, eta, Vargak zioen moduan, burgesiaren modernizazio erronka bati erantzuten ziola esanez. Gainera, Poulantzasekin bat eginda, faxismoaren gorakadak ez zuela ezinbestean iraultzaren goranzko momentua mozteko ahalegina izan behar esan zuen; aitzitik, iraultzaren arriskua *iragan ostean* langileen aurrerapenak ezabatzeko modu bat izan zitekeela iritzi zion. Hala ere, Polanyiren akats nagusia, esan bezala, eskuin autoritarioko edozein erregimen faxismo gisa identifikatzea izan zen. Hain zuzen, ikusiko dugun moduan, frankismoa bezalako erregimen «iraunarazle» bat auzitan jartzeko hankamotz geratzen da Polanyi[5].

Mișcarea Legionară (Burnizko legioa, Errumania)

Nyilaskeresztes Párt (Gurutze Gezituaren Alderdia, Errumania)

Roger Griffinen arabera, «nazio palingenesian» –birsortzean edo berriz hastean, ez berrezartze hutsean– zutarritzen da faxismoa, hau da, ultranazionalismoa, mobilizazio populista eta nazioaren birfundatzea nahasiko lituzkeen proiektu politiko bat izango litzateke

Noltek, gutxi gorabehera, akats berdina errepikatzen du; izan ere, bere liburuan, erakusleetako bat dena, Charles Maurrasen *Action Française* taldea jotzen du. Nolteren arabera, faxismoak «garai historikoan» aurkitu zuen bere adierazbidea. Baina ez hori bakarrik; haren esanetan, faxismoak «garaia definitu zuen». Beraz, Noltek zioen bezala, faxismoaren eta inguruko indarren artean harremana izan zen, hau da, polo erakargarri gisa jokatu zuen faxismoak[6]. Nahiz eta Noltek gerora faxismoaren aldeko politikara jo, bere lan horiek oso garrantzitsuak izan ziren, orduko eskuinak faxismorantz nola baskulatu zezakeen azaltzen zuelako. Izan ere, ikusiko dugun moduan, marxista askok «garaiari» egin zioten erreferentzia, adibidez, E. J. Hobsbawm historiagileak. Hobsbawmek bat egin Poulantzasekin esanez faxismoa ez zela hainbeste «sobietar arriskuaren» –zeina 30eko hamarkadan ez zegoen munduan zehar iraultza hedatzeko estrategian– aurkakoa, baizik eta «barne langile mugimenduaren aurkakoa», eta adierazten du 1918 eta 1941 urteen artean demokrazien kopurua seira jaitsi zela Europa osoan[7]. Beraz, «zer» eta «zertarako» galdetzeaz gain, «noiz» bati erreparatzen badiogu faxismoa ulertzeko, gerren arteko aro nahaspilatsu bat ikusiko dugu. Garai horietatik at zaila da faxismoa ulertzea, eta ez bakarrik garai horrek burgesien erantzun bortitz bat errazten zuelako, baizik eta, horretaz gain, orduko joera estetiko eta kulturalek (abangoardiek adibidez, zeintzuek faxismoaren osagai garrantzitsuak ziren bitalismoa eta boluntarismoa bultzatu zituzten, modernitatearekiko «ezkortasun» bat bultzatzeaz gain) garai hartako eskuinean eragin zutelako: modernitate liberalak pott egin bazuen, modernitate alternatibo bat bilatzeko beharra topatu zuen eskuinak eta hark ezberdindu zuen, akaso, eskuin tradizionalistarengandik, zeinak modernitate oro errefusatzen zuen, bai eta eskuin autoritarioarengandik ere, zeinak ez zuen modernitate alternatibo bat asmatu nahi[8].

Beste ikuspuntu bat ere badugu, «norekin» galderari erantzuten diona. Hau da, faxismoaren eta Estatuaren nahiz haren instituzio kontserbadoreen (Armada, Eliza, prebisio-instituzioak, Polizia, ekintza korporatiboko instituzioak) arteko harremana nolakoa izan zen azaltzen duena. Harreman hori faxismoaren Estatuarekiko izaera bikoitzak moldatutakoa da: alde batetik, Estatuaren defendatzailerik bortitzena –gogora dezagun 1921ean Italian faxistak nabarmendu zirela sozialisten kontrako bortizkerian, jabetza pribatuaren defentsan–, beste alde batetik, intsurrekzionala; alde batetik, «gordetzailea» eta, bestetik, «eraldatzailea»; aldi berean modernitatearen kontrakoa (XIX. mende «dekadentearen» kontrakoa) baina, bestetik, modernoa, iraganeko loriak etorkizunean proiektatu nahi zituen mugimendua. Roger Griffinen arabera, «nazio palingenesian» –birsortzean edo berriz hastean, ez berrezartze hutsean– zutarritzen da faxismoa, hau da, ultranazionalismoa, mobilizazio populista eta nazioaren birfundatzea nahasiko lituzkeen proiektu politiko bat izango litzateke; Estatua tresna bezala duena, baina, aldi berean, konkistatu beharra daukana. Hau da, faxismoa Estatuaren defendatzaile eta «birfundatzaile» dugu aldi berean, Estatuak eta «nazioak» bat egiten dutelarik. Eta elitista (elite berri bat fundatu nahi du) eta antielitista (elite soziopolitiko zaharrak uzkaili edo azpiratu, historikoki gehiago azpiratu uzkaili baino, nahi ditu) dugu aldi berean. Beraz, faxismoarentzat Estatua harrapakin konkistagai eta gotorleku dugu, Estatuaren instituzioak «defendatu» egiten ditu proletarioarengandik, baina masa berri baten –masa nazionalen– toki bilakatu nahi ditu. Horrek eramaten du aldi berean intsurrekzional eta kontserbadore izatera. Faxismoaren «norekin» galderaren erantzuna «Estatuarekin» –Estatuaren instituzio eta eliteekin– izan daiteke, baina ez «horrekin bat».

Esan bezala, faxismoa anbiguetatez blai dagoen ideologia bat da. Are gehiago kasu batzuetan, beste ideologia batzuekin nahastuta boterera iristen bada, Espainian kasu[9]. Erregimen frankistaren izaeraren, eta batez ere faxismoarekiko harremanen (harreman ez soilik «materialak» edo «fisikoak», hau da, potentzia faxistekin izandako harremanak; baizik eta ideologikoak edo filosofikoak ere bai, faxismoarekiko ideologia gisa izandakoak) soka luzea du historiagileen artean, eta ez soilik Espainiako Estatuan, baizik eta nazioartean ere bai. Frankismoa faxista zela ukatzeko zein baieztatzeko hainbat arrazoi ezarri izan dira eta, kasu batzuetan, eztabaida politikoa-

rekin nahastu izan dira; adibidez, alde batetik, batez ere argitalpen dibulgatiboetan, frankismoa faxismo gisa identifikatu izan da horren izaera «benetan ankerra» salatzeko, eta, beste batetik, batzuek ukatu egin dute horren ezaugarri-multzo faxista, onargarriago egin ahal izateko. Horren kasurik nabarmenena Juan Jose Linz akademikoa izan zen. Linz izan zen frankismoa «autoritariotzat, baina ez totalitariotzat» jo zuen lehenengoetakoa. Linz Amerikako Estatu Batuetan karrera egin zuen ikerlari bat izan zen, Manuel Fragaren hurbilekoa zena. Gerra Hotzean, AEBen joera geopolitikoarekin, zeinak AEBen aliatu ziren diktadura militar «autoritarioen» eta «diktadura komunista *totalitarioen*» arteko bereizketa bat ezartzen zuen, bat zetorren[10]. Linzen eskeman, frankismoaren izaera totalitarioa ukatzeko, erregimen hori indar batek soilik ez, baizik eta eskuineko indarren koalizio batek osatu izana gakoa da; bere ustez, frankismoa «aniztasun mugatu» batek osatzen zuen, beraz, ezin zatekeen erregimen totalitario bat izan.

Hala ere, Linzez gain, beste zenbaitek ere ñabartu dute frankismoaren eta faxismoaren arteko harremana. Horietako bat izan zen Javier Tusell. Haren arabera, frankismoan hainbat indar ezberdin osagarriak izateak dakar frankismoa faxista gisa definitzeko zailtasuna[11]. Bestetik, Glicerio Sanchez Reciok ere Linzi kritika egin zion; bere ustez frankismoa «koalizio atzerakoi» batek sortu zuen, Linzen «aniztasun mugatua» baino termino zuzenagoa delakoan. Sanchez Reciok Linzi kritika egokiak egiten dizkio; adibidez, frankismoaren tokiko boterea ikertuta, talde ezberdinen arteko borrokak eta korrelazioa aztertu zituen, «aniztasuna» bestetik eman gabe. Bestetik, Sanchez Reciok dioenez, erregimenaren pluraltasuna gehiago da «jatorrizkoa» erregimenaren garaian egin zutenagatik baino, hau da, horrek ez du esan nahi erregimenaren baitan hainbat «fakzio antolatu» zeudenik, nahiz eta jatorrian aniztasun moduko bat existitu[12]. Azkenik, Roger Griffinen arabera, erregi-

Europan erregimen frankista izan zen, Portugalekoarekin batera, halako tankerako erregimenen artean luzaroen iraun zuena. Horrek esan nahi du «faxismoaren garaiaz kanpo» irautea lortu zuela. Nolatan? Mendebalde antikomunistaren maniobra oportunistatzat jo dezakegu

Falange Española de las JONS
(Ofentsiba Nazional-Sindikalistako Batzordeen Espainiako Falangea)

men frankista «parafaxismo» bat izan zen; izan ere, haren arabera, frankismoak faxismoa «erabili» egin zuen, modu faxistak erabili zituen, baina nukleoa ez zen faxista, ez zuen «nazioa birfundatu nahi», ez zen «nazionalismo palingenetiko» bat[13]. Griffinen teoria, zeinak faxismoa eta bestelako elementu atzerakoien ezkontza dakarren, interesagarria da; hala ere, gero ikusiko dugun moduan, asko ñabartu daiteke.

Bai Linzek bai Tusellek frankismoa «zer» zelako ukatzen zuten faxista zenik. Hala ere, beste batzuen arabera, frankismoaren azken hamarkadetan izan zen biraketa kanpoko faktoreen araberakoa izan zen, ez erregimenaren proiektua. Beraz, frankismoaren «zer» hori hasierako hamarkadetan bilatu behar dugu, hau da, bere berezko proiektua modurik «garbienean» azaldu zezakeenean. Frankismoaren izaera faxista edo elementu faxistek gorpuztu zuten norabide edo fakzioa nagusi izan zen frankismoaren lehen etapa horretan. Ez dago zalantzarik kasu horretan: ideologia faxista bere egiten zuen alderdi bakarreko diktadura ezarri zuen, erregimen korporatibista ezarri zuen langile erakunde sindikalak deseginez, liderrari kultua ezarri zuen, masen mobilizazio liturgiko-politikoa gauzatu zuen, eta abar. Ikuskera horrekin bat egiten dute, adibidez, Manuel Tuñon de Larak eta Josep Fontanak[14]. Julian Casanovak, bestalde, jada aipatu dugun eta aipatuko dugun beste alderdi bati egiten zion erreferentzia: frankismoan indar ezberdinek hartu zuten parte, baina horrek ez du ezeztatzen diktadura faxista bat zenik, erregimen faxista «puruek» ere euren koalizio faseak izan zituzten eta[15].

Baina, beste alde batetik, kontuan izan behar dira beste faktore batzuk ere. Europan erregimen frankista izan zen, Portugalekoarekin batera, halako tankerako erregimenen artean luzaroen iraun zuena. Horrek esan nahi du «faxismoaren garaiaz kanpo» irautea lortu zuela. Nolatan? Mendebalde antikomunistaren maniobra oportunistatzat jo dezakegu, eta zilegi da, baina hori gertatu zen erregimen horrek «testuinguru ez faxista» batean tokia egiteko elementuak izan zituelako, baita egokitzapena egiteko elementuak zituelako ere.

«Zertarako» horri erreparatzen badiogu, frankismoa, behintzat haren genesia, faxismoaren kategoriaren barruan sartuko litzateke dudarik gabe: burgesiaren indarrezko –eta, hein batean, baita masazko izaeraduna ere, han izan baitziren estatu kolpearekin bat egin zuten herritarrak– konponbidea izan zen «arrisku iraultzailearen» aurrean. Nikos Poulantzasen eskemaren arabera[16], frankismoa arrisku iraultzailea geratzeko ezarritako burgesiaren indarrezko proiektua izan zen. Esan bezala, «zertarako» hori kontuan hartuz gero, erregimen frankista faxismoaren oso antzekoa izan zen dudarik gabe –eta boterea hartzeko momentuan, gainera, Italiakoa eta Alemaniakoa baino askoz ere odoltsuagoa–.

Hala ere, horrek badu arazo bat; hain zuzen, faxismoa «zertarako» huts bat baldin bada, «nork» delako hori zokoratzea, hau da, faxismoa bera autonomia historikorik gabeko zerbait bailitzan hartzea. Horrekin jarraituta, «zertarako» hutsean geratzearekin, hau da, faxismoaren subjektua ezabatzearekin, faxismoaren eta erregimen burges ez-faxista errepresibo baten arteko ezberdintasuna ezabatuko genuke[17]. Nork ezarri behar zuen faxismoa Espainian? Zenbait ikerlarirentzat, baita dibulgazioan aritzen diren zenbait publizistarentzat ere, frankismoa «faxismo» modura baztertzeko arrazoi nagusia da erregimenean zegoen alderdi faxista ofiziala, hau da, Falange Española, berez oso ahula zela. Izan ere, alderdi horrek 1936ko otsaileko hauteskundeetan ez zuen diputatu bat bera ere lortu (Europako bi alderdi faxista paradigmatikoenak, Italiakoa eta Alemaniakoa, masa alderdiak izan ziren boterera itzuli aurretik; eta beste toki batzuetan, adibidez Errumanian eta Hungarian, masa alderdi faxistak ere bazeuden). Botere alderdi (eta masa-alderdi) bihurtu baldin bazen, kasta

Ilustrazioak: Sim
(José Luis Rey Vila)
Edu Vidiellaren artxiboa

Dim XXXVI

militarraren ordezkari nagusiak (diktadoreak) bere «besoetako alderdi» –hau da, autonomia kenduta– bihurtu zuelako gertatu zen, eta mendeko posizio hori ez zuen sekula gaindituko.

Hori guztia, egia izanagatik ere, historiaren parte bat besterik ez da. Izan ere, ez du azaltzen zergatik eraiki zuen «kasta militar» horrek (behintzat lehenengo hamarkadan) faxismoaren hain antzekoa zen erregimen bat; hau da, zergatik aukeratu zuen faxismoa helburu gisa. Arrazoi bat izan zitekeen Francori gerran lagundu zioten erregimenak faxistak izatea eta, horregatik (ez hainbeste presioagatik, baizik eta «eredu gisa hartzeagatik»), frankistek edota estatu kolpea egin zuten militarrek erregimen horiek imitatu nahi izatea. Izan zitekeen, bestalde, garai hartan Europan, eskuineko iritzi publikoaren artean, faxismoa izatea «erreferentziazko ideologia». Horrela, 1930eko hamarkadan, estatu burges askok utzi zioten demokratikoak izateari edo demokraziaren mozorroa erabiltzeari. Baina bi faktore horiek, berez, ez dira nahikoa Espainia barruko indar politiko, sozial eta ekonomikoek euren proiektuaren gauzapen gisa faxismoa –esan bezala, behintzat lehen hamarkadetan– edo «faxismoan inspiratutako zerbait» haiena egin izana azaltzeko. Faxistak hain ahulak baldin baziren, zergatik ez zuten diktadura autoritario konbentzional bat ezarri militarrek? Zergatik bihurtu zen Falangea Francoren «haur besoetakoa», autonomia murritzekoa baina hain boteretsua?

Erantzunetako honakoa izan daiteke: berez, faxistak ez ziren beste indar eskuindarrak (CEDA edo eskuin katolikoa; *Renovacion Española* edo eskuin monarkikoa; eta karlismoa edo eskuin tradizionalista) «faxismoak kutsatu» zituen 1930eko hamarkadan. Hau da, faxismoaren fenomenoa jada ez zen «lehen orduko faxisten kontu bat» soilik. Faxismoa erreferentzia bat zen, baina ez soilik Europako erreferentzia edo Europari begira so egitekoa, baizik eta baita «etxe barruko» erreferentzia ere. Hau da, erregimena nahiz erregimena sostengatu zuen eskuina faxistatu edo faxistizatu (hau da, «faxistizazio» edo «faxistatze» prozesu bat eduki) egin ziren. Kontzeptu horrek, gainera, Ismael Saz irakasleak dioen moduan, beste abantaila bat ere badu: faxistizazioaren subjektuak ez lirateke soilik «lehen orduko» faxista historikoak izango, hau da, bestelako eskuina ere izango litzateke subjektu. Hots, erregimen frankistaren barruan, lehen etapan, ezaugarri faxisten nagusitzea ulertzeko ez da beharrezkoa Falange indartsu eta autonomo bat historikoki aintzatestea; beste indarrak ere izan zitezkeen prozesu horren subjektu[18]. Hau da, lehen aipatu dugun Roger Griffinen teoria (eskuin autoritario ez faxistak «forma faxistak» hartzen dituela uste zuena) gainditzen du; izan ere, bien arteko harremana aldebakarrekoa izan ordez–batzuek besteak, faxistek eskuindar «klasikoak», erabiltzea, kasu–, elkarrekiko eraginean ezartzen du. Bestetik, kontzeptu horren bidez, posible da garaiari eta kanpo eta barne faktoreen kodeterminazioari ateak zabaltzea ere; hau da, garai hartako testuinguru politikoarekin bat egitea –Noltek eta Polanyik azaldu bezala–. Ismael Sazen arabera, kontuan izan behar dugu «faxistizazio» kontzeptua faxistek eurek zein komunistek erabiltzen zutela; adibidez, Dimitrovek esana zuen faxismoak boterea lortu aurretik «demokraziaren faxistizazio» fasetik iragan behar zela, eta «erregimen faxistatuez» hitz egiten zuten garaiko demokraziaren autoritarismoranzko joera salatzeko[19].

Faxistizazioaren kontzeptu horrek nahikoa arrakasta izan du historiografian. Hala ere, horrek beste galdera batzuk zabaltzen ditu: zein mailakoa izan zen frankismoaren faxistizazioa? Nahikoa izan zen erregimen hau faxistatzat hartzeko? Nork eragin zuen faxistizazioa, militarrek eta haiek emandako estatu kolpeak, edo prozesu horretan zegoen aurretik eskuin «politikoak»?

Zenbaiten ustez, faxistizazioaren kontzeptu horrek erregimen faxisten aroan Espainiako eskuinarengan –bai ideologo ezberdinengan bai erregime-

Dimitrovek esana zuen faxismoak boterea lortu aurretik «demokraziaren faxistizazio» fasetik iragan behar zela, eta «erregimen faxistatuez» hitz egiten zuten garaiko demokraziaren autoritarismoranzko joera salatzeko

Falangisten elkarretaratzea (goian) eta mitina (azpian), Zaragozan 1936an

Félix Maiz
Miguel Cabanellas Ferrer general kolpista Iruñean

narengan– izan duen eragina modu egokian azaltzen du[20]; hain zuzen ere, «prozesu» gisa –joan-etorrikoa, mailakatua, indar korrelazioaren araberako tirabira bat aurkezten duena[21]– ulertzera ematen du, frankismoaren moldatzeko gaitasuna bi norabideetan –alderdi faxista hegemonikorik gabeko faxismorantz, zein faxismo gradu handiago batetik abiatuta kontrako norabidean– ulertzera eman dezake eta.

Ikerlari batzuen arabera, Espainiako faxismoa, nahiz eta Italiakoaren edo Alemaniakoaren mailara ez heldu, faxismoen multzoan sartuko litzateke[22]. Hala ere, beste ikerlari batzuen arabera, Barrington Moore-n arabera, adibidez, faxistizatzearen kontzeptuak dakarren arrisku bat da ezaugarri faxistaren bat duen erregimen oro «faxistatzat» hartzea, Karl Polanyiren ikuskerari egin dakiokeen kritika gogorarazten digu honek[23]. Bestetik, Joan Maria Thomàs bezalako ikerlariek erregimenaren barne faxistizazio maila kanpo-testuinguruari lotuta dagoela ere esaten dute; faxismoak II. Mundu Gerra galdu ostean Espainian, iraun zuen tokian, proiektu faxista betetzea edo norabide horretan aurrera egitea oso zail ikusten zuen[24]. Ismael Sazek, gainera, kontuan izanda faxistak Espainian nahiko ahulak zirela, faxistizatze horrek faxismo hutsa izaten bukatu zuela ukatzen du (II. Mundu Gerraren osteko eboluzioa, barne-trauma handirik gabekoa, lekuko). Egia baldin bada ere erregimen faxista «puruak» –Italian eta Alemanian– ere koalizioak izan zirela, eta horrek ezeztatu egiten badu ere frankismoa erregimen faxista bat zela ukatzeko «eskuineko koalizio bat» zela nabarmentzen duen argudioa –Linzen eskolarena–, egia da frankismoan presente egon ziren elementu ez-faxisten edo a-faxisten presentziak erregimenaren eboluzioa lagundu zutela, sektore «faxistizatu» horientzat faxismoa baliagarria ez zenean horren indarra, «kanpotik zetorkion» indarra, murrizteko gai izan baitziren[25].

Hau azalduta, Espainian eskuinak estatu kolpea eman aurretik izan zuen faxistizazio prozesua azaldu beharrean gaude.

ESKUINAREN FAXISTATZEA 1934 ETA 1936 ARTEAN

Egia baldin bada ere eskuinaren sektore sozial handiek ez zutela sekula Errepublika bere horretan onartu, kontrako jarrerak are indartsuago egin ziren 1934. urtearen ostean. Hau da, handik aurrera, eskuinaren barruan erregimen demokratiko-burgesarekin jarraitzearen aldeko ahotsak erabat

minoritarioak bihurtu ziren. Momentu horretatik aurrera, Espainiako eskuinak erregimen autoritario baterako bidea egin nahi zuen. Noski, horrek ez du esan nahi erabateko adostasuna zegoenik euren artean ez eta «erregimen autoritario» kontzeptuarekin denek gauza bera ulertzen zutenik ere –beraz, horrek ez du esan nahi helburu berdina zutenik, edo erregimen autoritario hori gauza berdinetarako behar zutenik-; hau da, nekez esan daiteke 1936an Espainiako eskuindarren artean 40 urteko diktadura militarra gehiengoaren programa zenik. Baina bai esan dezakegu erregimen burges-demokratikoak eta hura ordezkatzen zuen Errepublikak ez zutela inolako itzalik jada eskuineko sektorean, ez ideologikoki, ez metodologikoki. Ideologikoki diot, eskuindar gehienek demokraziari eta liberalismoari uko egin zietelako. Eta metodologikoki diot, «ordenaren zale errepublikanoak», «konstituzionalistak» eta beste batzuen artean Mola buru zuten militarren taldeak edo Lerrouxen jarraitzaileak, hauteskundeez harago, indarra erabiltzeko prest zeudelako Fronte Popularra gobernutik botatzeko eta «ordena konstituzionala berresteko» (1936ko otsailetik uztailera bitartean giroan egon zen bortizkerian eta «ordena faltan» eskuin kolpistak izan zuen ardura ez zen txikia izan).

Nagusiki, eskuinaren bi instituzio handiek egin zuten bat kolpe militarra legitimatzeko: Elizak eta Armadak. Bi instituzio horiek izan ziren eskuin soziologikoa gehien ordezkatu zutenak, eta eskuinak horiek zituen Espainiaren zutarritzat. Nahiz eta kolpea prestatzeko asmoetan Elizak ez zuen ia parte hartu, egia da eginkizun garrantzitsua bete zuela kolpistak legitimatzerakoan, eta are gehiago, Errepublika garaian erregimen demokratikoari zilegitasuna kentzean. Elizako goiburuek, adibidez Toledoko artzapezpiku Pedro Segurak edota haren ondorengo Isidro Gomak, konponbide bortitzak legitimatu zituzten, eta zilegitasuna kendu zioten Errepublikari; ez soilik «egitez», baizik eta «jatorriz» ere bai. Garai hartan, Elizaren barruan Aniceto Castro Albarran bezalako teologoen *Derecho a la rebeldía* (*Matxinatzeko eskubidea*) bezalako lanek arrakasta handia izan zuten, zeintzuek argi eta garbi jotzen zuten estatu kolpera.

Militarren auzia bi ikuspuntutatik uler genezake. Kontuan izan behar dugu, hainbat arrazoi zirela-eta, militar gorenek ez zutela Fronte Popularraren gobernua batere maite. Hala ere, horretarako bi arrazoi aurki genitzake: alde batetik, militar monarkiko zaharren presentzia eta, bestetik, militarrek beti uste izan zutela Espainiako politikan esku hartzeko eskubidea zutela. 1808tik 1936ra bitartean, 60-70 estatu kolpe edo estatu kolpe saiakera izan ziren Espainian[26]. Hau da, militarren artean bazegoen «politikan parte hartzeko» nolabaiteko tradizio bat, eta hain zuzen ere, indartu egin zen tradizio hori Miguel Primo de Riveraren garaian. Gainera, 1931 eta 1933 urteen artean Azañaren gobernuak martxan jarritako erreformek ahuldu egin zituen militarren zenbait zirkulu politiko (adibidez, 1917an sortutako Defentsa Batzorde Militarrak). Militar kontserbadore askok (baita errepublikanoek ere) barneratu egin zuten ezkerrarekiko mesfidantza. Kontuan izan behar da 1934an boterea hartu zuen eskuineko koalizioak, batez ere Gil Robles gerra ministro zuenak, Armadaren goi-postuetan militar kontserbadoreak goratzeari ekin ziola, Armadaren eta gobernuaren arteko eragin-sareetan eskuineko gotorleku bat eratuz. Eta kontuan izan behar dugu, bestalde, 1934ko iraultza zapaldu zuena, batez ere, Armada izan zela. Horrek *armadafilia* handia sortu zuen Espainiako eskuinean, adibidez, Calvo Sotelok esan zuen moduan, «Armada ez da Aberriaren beso bat, Aberriaren bizkarrezurra da».

Hala ere, Armadaren esku-hartzeak ez du berez faxismoa esan nahi; ez da «nahikoa baldintza» faxismoa ezar dadin. Nola gertatu zen gainontzeko indarren faxistatzea? Eskuineko beste indarrek nolabaiteko faxistizazio prozesu bat bizi izan zuten, polarizazio sozialak

Kontuan izan behar dugu, bestalde, 1934ko iraultza zapaldu zuena, batez ere, Armada izan zela. Horrek *armadafilia* handia sortu zuen Espainiako eskuinean, adibidez, Calvo Sotelok esan zuen moduan, «Armada ez da Aberriaren beso bat, Aberriaren bizkarrezurra da»

aurrera egin ahala. Kontuan izan behar da polarizazio horrek bi ondorio izan zituela eskuindarrengan: alde batetik, erradikalizatu egin zituen, eta beste alde batetik, euren arteko batasunerako bidea ireki zuen; atomizaziotik batasunerako bidea egin zuten.

1933ko urrian sortu zen *Falange Española* alderdi berria, eta horrek sekulako garrantzia izan zuen gainontzeko indar eskuindarren eboluzioan. Alderdi hori Espainiako alderdi faxista huts bakarra izan baldin bazen ere, ez zen izan faxismoari begi onez begiratu zion bakarra. Eskuin monarkikoaren esparruan zatiketa bat izan zen 1932 eta 1933 artean –CEDA eta *Renovacion Española*–, eta Falangeren posizioetara hurbildu zen Renovacion Española monarkikoen alderdia. Kontuan izan behar da, kasu horretan, nahiko ohikoa izan zela alderdi batetik bestera mugitzea; izan ere, Renovacion Españolako –berez monarkiaren inguruko oligarkak bitzen zituen alderdia– kide askok ekin zioten alderdi berria finantzatzeari.

Alderdi hori, «eskuin monarkikoa», Espainiako Estatu liberalaren –1876ko erregimenaren– tradiziotik zetorren alderdi monarkiko «alfontsotarra» zen berez. 1931ko Errepublikaren aurrean oso posizio gogorrak hartu zituen. Elite sozioekonomikoko kideek osatutako alderdi bat izanda, ez zeukan Falangek edo Europako gainontzeko alderdi faxistek zeukaten mobilizazio gaitasuna. Hala ere, beste zenbait kontutan haiengandik hurbil zegoen; batez ere, «Aberriaren» sakralizazioan, Aberri hori barne «etsaietatik» (sozialismoa, iraultza, separatismoa nahiz «demokrazia») libratzeko nahian, ekonomia korporatiboaren defentsan eta biolentziaren erabileran –hala ere, Falangek ez bezala, Renovacion Españolak ez zuen kale-bortizkeriaren alde egiten, bazik eta zuzenean militarren, hau da, «elitearen indarrezko kolpea» bilatzen zuen, ez «intsurrekzioa»–. Kontuan izan behar dugu Renovacion Española (eta ez Falange) izan zela 1936ko kolpea baino lehenagoko hilabeteetan Italiarekin harremanak izan zituen alderdia. Alderdi horretako buru Jose Calvo Sotelok «faxistatzat» jo zuen bere burua 1936an; Espainiako kontserbadoreen faxistizazio prozesua zenbaterainokoa izan zen azaltzen du horrek. Zenbait egileren arabera, Renovacion Española da Francoren erregimenaren berrogei urteko iraupena ondoen laburbiltzen duen eskuin aurrefrankistako sektorea.

Bi ziren alderdi horren eta CEDAren, «eskuin katolikoaren», arteko ezberdintasun nagusiak. Jose Maria Gil Roblesen CEDA alderdia, Eliza Katolikoaren inguruko taldeetatik sortutakoa, masa alderdi bat zen, Renovacion ez bezala. Bestetik, hasieran, Renovacion Españolak ez bezala, sistema «katoliko eta korporatiboa» Errepublikaren formen barruan gauzatzea ere posible zela uste zuen –Renovacionen arabera, monarkia ez beste sistemak ez ziren zilegi–. Hasieran nolabaiteko erretolika demokratikoa onartzen baldin bazuten ere, pixkanaka, Errepublikaren eta demokraziaren kontrako bideetatik joan ziren. CEDAk ere bere faxistizazio prozesua izan zuen, batez ere 1933 eta 1934 artean «estatu berria» –katolikoa eta korporatiboa– izango zena defendatzen hasi zenetik, zeina demokraziaren «igualitarismoaren» kontra agertuko zen. Kontuan izan behar dugu CEDAren gazterietako burua, Ramon Serrano Suñer, Falangera igaro zela 1936an, eta Francoren erregimeneko ministro izan zela gero. CEDAk, nahiz eta oso mesfidatia zen faxismoaren erabateko totalitarismoarekiko eta estatulatriarekiko, 1934tik aurrera bere egin zuen Austriako eredua (non erregimen demokratiko batetik erregimen faxista bat izatera igaro ziren, Döllfuss lehen ministroarekin), bere «Estatu korporatiborako bidea» erakutsiz.

Gainera, eskuin tradizionalista edo karlistak ditugu. Kontuan izan behar dugu alderdi horrek, CEDAk eta Renovacionek ez bezala, bazuela masa bortizkeriaren dinamikan aritzeko tradizio bat. 1931tik aurrera, erreketeak antolatzeari ekin zion bere milizia propioak,

1936an, inor gutxi zegoen eskuinean demokrazia onesteko prest. Gainera, kontuan izan behar da dinamika mobilizatzaile berriek handitu egin zutela faxismoaren sona eta erakargarritasuna

Carlos Amat
Kolpistak Iruñean

baina 1934an indartu zen; Mussoliniren agenteek Italian entrenatuta itzuli ziren hainbat. Nahiz eta beren lurralde ezarpena mugatua izan, esku hartzeko dagoeneko prest zegoen milizia bat izanda eta zenbait tokitan estatu errepublikanoari «indarraren monopolioa» borrokatzeko gai izanda, oso talde erakargarria zen 1936ko kolpea prestatzen ari zirenentzat.

Azkenik, ezin dugu ahaztu aurretik soziologikoki indartsua izandako talde bat: Alejandro Lerroux-en Alderdi Erradikala. Alderdi hori indartsu atera zen 1931ko eta 1933ko hauteskundeetatik, eta horien ostean, CEDArekin gobernua osatu zuen. Beren lider Lerrouxen ustelkeria zela-eta 1936ko hauteskundeetan alderdia hustuta agertu arren, eskuin politikoarekin egin zuen aliantza antisozialistak ekarri zuen sektore handi bat eskuin soziologikora igarotzea. Talde horrek ordezkatzen zuen «errepublikano ordenazaleen» sektoreak, oro har, estatu kolpea babestu zuen.

1936an, inor gutxi zegoen eskuinean demokrazia onesteko prest. Gainera, kontuan izan behar da dinamika mobilizatzaile berriek handitu egin zutela faxismoaren sona eta erakargarritasuna.

KOLPE MILITAR KLASIKO BATETIK ALDERDI BAKARRERANTZ

Frankismoaren elementurik bereizgarrienetakoa izan zen errepresioa, bai gerran zehar bai gerraosteko urteetan. Errepresioak, etsaia «diziplinatzeaz» gain, beste ondorio bat izan zuen: fidelizazioa, hau da, «aldeko komunitatea» trinkotzea, aldekoak eta etsaiak banatuta, eta aldekoen artean ere gutxieneko batzuen inguruan adostasun hori gotortzea, hau da, «komunitatea» egitea, Estatua egitea. Hala ere, espazio kontuak medio, ezin dugu errepresio frankistan sakondu (historiagileen arabera, 150.000 eta 200.000 hildako artean eragin zituen, gerra zibila zein gerraoste berehalakoa kontuan hartuta), artikulu honen helburua beste bat baita. Hala ere, bi puntu aipatuko ditugu: errepresioa hasieratik izan zen kontrakoa txikitzeko nahiz Errepublika ezabatzeko eta eskuindarren arteko elkartasuna bultzatzeko balio izan zuen mekanismo bat, beste modu batera esanda «aldeko taldea» trinkotzeko.

Hori esanda, momentu honetan, beste auzi bat interesatzen zaigu: alderdi bakarrak eta «eskuindarren batasunak» faxistizazioa erraztu zuen edo ez. Esan bezala, estatu kolpea eman zuten indarrak, euren arrazoi, mentalitate nahiz helburuei zegokienez, Fronte Popularrarekiko kontrakotasunak batutako «aniztasunetik» (hein batean) abiatzen ziren. «Aniztasun» horretan falangistak ez ziren indartsuenak; euren liderra errepublikanoek zuten atxilotuta (1936ko azaroaren 20an exeku-

Eztabaidaezina da erregimen berriaren nukleoa ez zela alderdi faxista izan, militar konspiratzaileen taldea baizik. Horiek, oro har, teorizazio gutxiko eta instintu kontserbadore handiko gizonak ziren, ideia kontserbadore tipikoei lotutakoak: monarkia, jabetza pribatua, erlijioa, ordena

Félix Maiz
Joaquín Ortíz de Zárate López militar kolpista Oreretatik gertu, Gipuzkoa

tatu zuten) eta euren indarrak erabat sakabanatuta zeuden. Nola bihurtu ziren edo bihurtu zuten erregimen berriaren bizkarrezur?

Eztabaidaezina da erregimen berriaren nukleoa ez zela alderdi faxista izan, militar konspiratzaileen taldea baizik. Horiek, oro har, teorizazio gutxiko eta instintu kontserbadore handiko gizonak ziren, ideia kontserbadore tipikoei lotutakoak: monarkia, jabetza pribatua, erlijioa, ordena. Hasieran, gehienak ez ziren falangistak –Yagüe bezalako kasuren bat kenduta–, ez eta karlistak –Varela eta agian Sanjurjo kenduta, azken hau kolpea gertatu eta egun gutxira, hegazkin istripu baten ostean hil zen–. Are, errepublikano beterano batzuk zeuden euren artean –Emilio Mola, Queipo de Llano edo Cabanellas, hainbat kasutan kolpisten artean odoltsuenak izan zirenak–. Francisco Franco bera, erregimen faxista-antzeko horren burua, nukleo horren parte zen, ez alderdi faxistaren parte. Nola erkatu ziren bi faktoreak?

Lehenengo gauza, aginte bateratua lortzea izan zen. Hori kolpea eman eta hilabete batzuetara izan zen: 1936ko irailaren 30aren eta urriaren 1aren artean elkartu ziren militarrak. Horrekin batera, militarrak euren «Estatua» eraikitzen hasi ziren; alegia, «behin-behineko ordena» zena «ordena iraunkorra» bihurtzeko lehen pausoak ematen hasi ziren. Ordura arte errepresiora eta kargugabetzeetara, hau da, *suntsitze lanera* mugatu baziren, orain organo berriak eta botere bertikal berria sortuz, suntsitzea alde batera utzi gabe, euren *eraikitze lanari* –Estatu totalitario berria eta horren legeak– ekin zioten. Beste alde batetik, altxatuen nukleoetako tokiko botereen gainetik, militarrak bakarrik izan ziren botere bilera horretan, eta datu hori kontutan hartzekoa da. Bilera horretan hartu zuten erabaki garrantzitsu bat militarren buru zein izango litzatekeen aukeratzea izan zen, hau da, gerora diktadorea izango zena: Francisco Franco Bahamonde. Hark kolpisten agintari nagusi izateko zenbait faktore alde izan zituen: alde batetik, garai hartan ez zela oso zaharra, eta bestetik, jeneral kolpisten taldearen «gutxieneko multiplo amankomuna» ziren ideiak ordezkatzen zituela (kontserbadorea, gehiago aritzen zena instintuz ideologia landu baten emaitza bezala baino, monarkikoa baina ez hainbeste, baizik eta kontserbadore gehienen «beharrezko bidesari» moduan, ez zen ez falangista, ez zen karlista eta ez zen «ordenako errepublikanoa» Mola edo Queipo de Llano moduan) eta garaipen militar batzuk lortu berri zituela, Andaluziatik Madrilgo hegoaldera eraman baitzuen Armada kolpista. Gainera, berekin harremanetan jarri ziren alemaniarrek Espainiari laguntza ematea erabaki zutenean (1936ko uztailean, ez lehenago Italiak egin moduan), alemaniarren laguntza zuten bere erregimentu eta dibisioek (tartean, Condor Legio anfibioarena). Beraz, lehen pauso horren bidez, militarrek, alde batetik, euren botere-nukleoa sendotu zuten eta botere bertikal bat ezarri zuten, eta beste alde batetik, diktadura pertsonalerako lehen urratsa egin zuten.

Beste arazo bat izan zen talde politiko intsurgenteen neutralizatzea. Talde horien kasuan –karlistak eta batez ere falangistak, II. Errepublikaren garaian eskuinaren barruan ahulenak izan zirenak–, gerra zibila bezalako dinamika batean, euren izaera bortitz eta mobilizatzailea zela-eta, indarrezko posizio batean geratu ziren eskuineko beste indarrekiko, eta nolabait, militarrekiko balantza bat osatzeko aukera izan zuten. Normalean uste denaren kontra, prozesu hori ez zen 1937an hasi «beharrezko bateratzearekin», baizik eta hilabete batzuk lehenago, 1936 bukaeran. Abenduaren 25ean izan zen «milizien militarizazioa»; hau da, zenbait alderditako miliziak Armadaren eta horko agintarien menpe jartzeko prozesua; alegia, haien autonomia galtzea. Horrek eredu faxista klasikoekiko distortsio bat sortu zuen, horietan «alderdiak gaina hartzen baitzion Estatuari»; kasu horretan, baina, alderantziz gertatzen ari zen. Baina, paradoxikoki, 1936ko

Generoso Huarte
Lubakia Aretxabaletako frontean

Italiarrek Espainiarako proposatutako alderdi bakarra gehiago izan zen «autoritario-teknikoa», erabat doktrinatutakoa baino. Italiarrek beharrezkoagoa ikusten zuten geopolitika politika bera (doktrina faxista) baino

abenduan, kaltetu nagusiak karlistak izan ziren. Hain zuzen ere, zenbait tokitan, batez ere Euskal Herriko zonalde konkistatuetan, zeuzkaten botereguneak –Gerra Junta Karlisten bidez eratutako botere paraleloa– deseginda geratu ziren, eta beren lider Manuel Fal Conde Portugalera kanporatu zuten. Hala ere, Armadak lehen pausoa eman zuen botere politiko absolutua finkatzeko (eta tartean, Armadako buruaren, Francoren, boterea finkatzeko). Beste alde batetik, alderdi faxistaren autonomia erabat mugatu zuten; beren miliziak desegin ez bazituzten ere, Armadaren menpe geratu ziren, hau da, Italian eta Alemanian gertatu zenaren kontrakoa gertatu zen (han alderditik edo haren milizietatik zetozen koadroek agindu zuten Armadaren hierarkiaren gainetik). Hori izan zen Falange gibeleratzeko lehen pausoa, hark protesta egin gabe gertatu zena. Bigarren gauza, esan bezala, alderdi bakarra bateratzea izan zen. Bateratze hori Salamancan gertatu zen, 1937ko apirilean, eta Francok erabat kontrolatutako alderdi faxista-tradizionalista hibridoa izan zen emaitza: Falange Española Tradicionalista. Hala ere, puntu honetan, gaur egun batzuen zein besteen alde dauden kazetariek egiten duten errebisionismoaren aurrean, esan beharra dago alderdi horren batuketa ez zela soilik Francoren asmakuntza izan. Egia esan, Salamancara iristean, banatuta zegoen Falange. Baina ez hainbeste «batasunaren» inguruko aferarengatik, baizik eta hierarkiari lotutako kontuengatik (Primo de Rivera hil ostean, zenbaitek ez zuten onartzen Manuel Hedilla lider berria)[27]. Bi fakzioek –baita Manuel Hedilla orduko buruzagiarenak ere, gerora «disidente» bezala ezarritakoa– egoki ikusten zuten karlistekin bat egitea eta, are gehiago, biek Franco eta militarren esku-hartzea profitatu nahi izan zuten kontrakoak baztertzeko. Horri dagokionez, kontuan izan behar da bi alderdien barruan –baita eskuineko beste alderdien barruan ere– zeudela eskuindar guztiak indar bakar batean bateratzeko asmoak, beste arrazoi batzuen artean, guztiak zirelako euren ahuldade propioaren jakitun. 1937ko otsailean eta martxoan, falangisten eta karlisten arteko bilerak gertatu ziren militarrez aparte, baina porrot egin zuten –noski, biek nahi zuten bateratze hori beren menpekoa izatea–. FET-JONSen bateratzea Francoren garaipena izan zen, 1937ko apirilean egin zen moduan, hein batean, Francoren «inposaketa» izan baitzen. Dena den, dinamika hori ez zuen Francok asmatu ez eta martxan jarri.

Jokaldi horren beste zutarri bat izan ziren italiarrak, haien aholkulariak alderdi bateratu bat sortzea aholkatu baitzuten. Italiarrak izan ziren Francori «beharrizan» hori gehien ikusarazi ziotenak. Dena den, bitxia baldin bada ere, italiarrek Espainiarako proposatutako alderdi bakarra gehiago izan zen «autoritario-teknikoa», erabat doktrinatutakoa baino. Italiarrek beharrezkoagoa ikusten zuten geopolitika (euren interesak bermatuko zituen aldearen garaipena eta hori bermatuko zuten urratsak) politika bera (doktrina faxista) baino; gehiago axola zitzaien alderdi bateratua eta aginte sendoa, falangista muturrekoen araztasun doktrinala baino. Hau da, italiarrek, praktikan, Francoren alde eta «faxista puruen» kontra jokatu zuten auzi horretan; hala ere, euren «zilegitasun faxista» nahikoa izan zen Espainiako faxista asko konbentzitzeko.

Hala ere, egia da momentu horretan Francok presa handia zuela alderdia bateratzeko. Zergatik? Momentu hartan, Madril laster hartuko zutela uste zutelako kolpista askok, eta nukleo militarrak arlo politikoa ondo itxita izan nahi zuelako hori gertatzen zenerako. Fakzioek gutxieneko autonomia bat baldin bazuten Madril kolpisten aldera pasatzen zenerako, orduan, ziurrenik, gobernu berria osatzeko, Francok haiek aintzat izan beharko zituen eta haiekin «ados» jarri beharko zuen. Aldez aurretik eta «adostasun» handirik gabe ixten bazuen alderdiaren bateratzearen kapitulua, ordea, botere bertikala bere menpe izango zuen. Bestalde, 1937ko otsail eta martxo inguruan, falangistek

Francisco Franco eta Benito Mussolini diktadoreen arteko bilkura 1941ean

eta karlistek abiatutako elkarrizketak neutralizatu behar zituen: bateratzerik izango bazen, ez zen «autonomoa» izango.

Bateratze politikoa 1937ko apirilaren 18aren eta 22aren artean izan zen. Istilu batzuk izan ziren falangisten artean –ez falangisten eta karlisten artean–, eta Francok erabili egin zituen horiek, jakina, figura batzuk zokoratzeko eta beste batzuk indartzeko. Baina, egiaz, falangista guztiak ados zeuden Estatuaren menpeko indar bateratu handi bat sortzearekin, baita militarren laguntza bilatzearekin ere (bai beste alderdien aurka, bai Falangeren barneko arerioen aurka). Faxisten arteko barnegatazka horrek ekarri zuen haiek militarren aurrean –are gehiago– ahultzea eta alderdi bateratu berriaren «autonomia» murriztea, baina ezer gutxi aldatu zen: bateratzea izan izango zen, eta horren urgentzia, batez ere, aurretik zetorren ahuldadeak ekarri zuen.

Apirilaren 18aren eta 19aren artean, falangisten kongresu batek Manuel Hedilla izendatu zuen buru berriro, hain zuzen ere, karlistekin bateratzea eman zedin. Hedilla bera Francorekin agertu zen FET-JONSen «Batasunaren hitzaldia» ematen. Hedilla «disidentearen» dimisioa –eta geroagoko atxiloketa– ez zen une horretan izan, lau egun beranduago baizik; apirilaren 22an. Eta ez zuen zerikusirik izan karlistekin bateratzearekin –ikusi dugun bezala, Hedilla izan zen bateratzearen alde gehien agertu zenetako bat– baizik eta alderdi berriaren zuzendaritza Francok aldebakarrez izendatzearekin, hots, alderdiaren autonomia osoa galtzearekin. Momentu horretara arte Francorekin agertu zen gizona, momentu horretan, hierarkia kasu bategatik lekutu zuten. Baina, ikusi dugun bezala, proiektuaren zutarriekin ados zegoen, bai bera bai falangista gehienak. Erregimen frankistan zehar, oso eroso kokatu ziren falangista gehienak Estatu berriaren aparatuan.

FET-JONS alderdi bakarra askotan «falangisten eta karlisten» arteko batasun bezala ulertu izan bada ere, kontuan izan behar dugu bi sektore horiek baino garrantzitsuagoa zen beste sektore bat egon bazegoela erregimenean (alderdi barruan zein alderditik kanpo, hau da, «aldeko ez mobilizatu» masa handi horretan; zeinak kargu politikoak, onura pertsonalak, segurtasuna eta abar lortu zituen erregimena zutarritzen laguntzearen truke). Eskuineko masa «ez lerrokatuaz» ari gara, hau da, fakzio konkretu batekin identifikatu gabe, erregimenarekin eta Guda Zibileko bando kolpistarekin identifikatzen zena –gehienetan, arrazoi ideologiko zehatz baten edo erregimenaren doktrina ofizialaren alde baino, «gorrien kontra», eta beraz, minimoen (jabetzak, erlijioa, «ordena») alde agertzen zena–. Gerra Zibilean eta Gerra Zibilak «sozializatutako» kontserbadore «arrunt» hori bihurtu zen erregimenaren zutarri sozialik handiena, bai FET-JONS alderditik kanpo, baina baita alderdiaren barruan ere, eta modu horretan, faxistizatze oso bat gertatzeko oztopo na-

Faxistizatze mailaren mugak militarrek jarriko zituzten, ez alderdi faxistak. Faxistek erregimen frankistan izan zuten papera menpekoa edo gibeleratutakoa izan zen, erregimen horren faxismoaren gradua gorabehera, erregimenaren nukleoa ez baitzuten faxistek osatu

gusia zen[28]. Egiatan, alderdi berri hori bi fenomeno paraleloren emaitza izan zen: faxismoak, ideia bezala (bai propagandari bai mobilizazioari dagokionez), Espainiako eskuina busti izanarena, baina baita, berez faxistak zirenen ahultasun politikoarena[29].

Praktikan, Francok falangisten eta karlisten arteko –bere menpeko– batasuna, gerora egin izan diren interpretazioak gorabehera, zarata handirik gabe egitea lortu zuen. Bai falangisten bai karlisten aldean, korronte horietako jarraitzaile askok –baita «lehen orduko historikoek» ere– kargu politiko garrantzitsuak lortu zituzten. Euren proiektu politikoa indartzen saiatu baziren ere, euren leialtasun nagusia erregimenarekiko eta haren «kaudilloarekiko» zen. Oro har, Francoren erregimenak funtzio bikoitza izan zuen faxistekiko (uler bedi, hasieratik «iraultza» faxista bat bilatzen ari zen jendearekiko): alde batetik, agintzeko aukera eman zien, euren alderdia masa-alderdi eta erregimen baten bizkarrezur bihurtu zuen eta faxistak goi-postuetara bultzatu zituen, batez ere lehen urteetan, propagandaren aparatuari dagokionez –beste era batera lortzea zail edo ezinezko izango zuten–. Baina, bestetik, euren autonomia politikoa desegin zuen: faxistizatze mailaren mugak militarrek jarriko zituzten, ez alderdi faxistak. Faxistek erregimen frankistan izan zuten papera menpekoa edo gibeleratutakoa izan zen, erregimen horren faxismoaren gradua gorabehera, erregimenaren nukleoa ez baitzuten faxistek osatu.

FRANCOREN ERREGIMENAREN OINARRI SOZIALAK ETA KLASE POLITIKA

Espazio faltagatik, nahiko zaila zaigu momentu honetan Francoren erregimenaren argazki oso bat ateratzea, batez ere erregimenaren aspekturik ilunena, hau da, errepresioa argitzeko. Kontuan izan behar da «bake garaietan», hau da, II. Mundu Gerrako biolentzia kenduta, erregimen hau izan zela, agian, Europako erregimenik biolentoena. Artikulu honetan, erregimenaren ideologia aztertuta, oinarri ideologikoak eta, gutxi gorabehera, oinarri ideologiko horiek ordezkatzen zituzten oinarri sozialen proiekzioa nolakoa izan zen aztertuko dugu.

Francoren erregimenaren garaipenaren ondoko politikak ikertzerakoan, historiografiak, batez ere, bi ildotatik jo izan du. Lehenik, Francoren garaiko eliteek zer nolako konposizio soziala hartu izan duten aztertu du, eta zein logikaren arabera igo izan diren boterera. Historiografiak erabiltzen dituen terminoen arabera, bi «garaipen logiken» arteko dialektika eman zen han, hau da, botere postuetara igotzeko bi «bide» ezberdin egon ziren, eta bide horien arteko teilakatze edo kontrajartzea izan zen. Alde batetik, frankismoak, erregimen kontserbadore gisa, Errepublikak arriskuan jarritako eliteen interesak ordezkatzen zituen, eta frankismoa elite horien «itzulera» moduan irakur daiteke. Horri «garaipen sozialaren logika» deitzen zitzaion; hau da, aurreko eliteek «beraiei zegokien tokia, Errepublikak erasandakoa,



Falangistak (faxismoa), Armada (autoritarismo militarra) eta Karlistak (kontserbadurismoa), erregimen berriaren hiru zutabe armatuak

berreskuratzean» datzana. Baina, beste alde batetik, frankismoa Errepublikaren kontra altxatu ziren talde politiko matxinoen (eskuindarrak, baina matxinoak) garaipena ere bazen, hau da, talde politiko horien –eta talde horietako beteranoen– nagusigoa, frankismoaren liturgiak ordezkatzen zituen taldeen –falangisten eta karlisten– garaipena. Horri «garaipen politikoaren logika» deritzo, hau da, elite horien «igogailua» politikoa gerrako partehartzea edota erregimenak bere egindako egitura politikoetan parte hartzea izan zen. Aldi berean «berrezartzailea» eta «berritzailea» zen erregimen baten tentsioak ikusten ziren bertan. Bi aspektuak izan zituen frankismoak, bai ideologikoki bai boterearen konfigurazioari dagokionez. Horrek historiagileen arteko eztabaida sakona piztu du gaur egunera arte: frankismoaz ari garenean botere-konfigurazioaren aspektu bat ala bestea lehenestearen aldekoak topatzen ditugu, eta bestetik bi «igoera-dinamiken» arteko harremana eta elkar elikatzea modu ezberdinean deskribatzen dituztenak ere badaude. Hala ere, bi logika horien (eta bakoitzaren atzean zetzan talde sozialen) arteko kolaborazioak eta elkar elikatzeak frankismoaren minimoen inguruko aztarna bat ematen digu: Errepublikaren eta horrek ordezkatzen zuen ororen –demokrazia, arrazionaltasun politikoa, aurrerapen soziala eta Espainiaren barne aniztasuna (forma eta gradu ezberdinetan)– arbuioa eta 1936ko uztaileko estatu kolpearen abiapuntu-izaera.

Hala ere, halako eztabaiden existentziak gauza bat agerian uzten du: frankismoaren izaera bikoitza, «eskuin zaharraren» (elite zaharrak eta horiek proposatutako soluzio autoritarioak) eta «eskuin berriaren» (faxismoa) arteko koaliziotik sortua. Bakoitzak bere agenda propioa gerraren garaipenaren ostean proiektatu nahi izan zuen.

Beste alde batetik, erregimen frankistaren politika faktikoez, egitateez mintza gintezke; horrek frankismoaren klase izaera argitara ateratzen du. Frankismoaren politika erabatekoa izan zen goi-mailako sektoreen aldekoa. Lehen neurriekin, hain zuzen ere, «Fronte Popularraren zilegitasun falta» hartu zuten aitzakiatzat, hau da, gobernu horrek egindako erreformak bertan behera utzi zituzten; adibidez, garai horretan kontratatutako langileak kaleratu zituzten edo garai horietan sindikatuek lortutako igoerak bertan behera uzteko eskubidea eman zien erregimenak enpresariei. Baina are gogorragoa izan zen nekazaritzan gertatutakoa, 1938an sortutako Nekazal Berreskurapen Zerbitzuaren arabera, Errepublikak egindako erreformen bidez banatutako lurrak lehengo jabeei (lurjabe handiei) itzuli behar baitzitzaizkien. Praktikan 6,3 milioi hektarea itzularazi zituen «kontraerreforma» horrek[30].

Baina ez zen soilik Fronte Popularraren «erreformen desegitea» izan, baizik eta epe luzerako politika izan zen, hain zuzen ere, klase desoreka printzipioaz bultzatutakoa. Antonio Cazorla Sanchez irakasleak ondo deskribatu izan duen bezala, frankismoaren lehen urteetan atzerakada ekonomiko eta sozial handi batean bizi izan zen Espainia, bai beste herriekin alderatuta, bai klaseen arteko distantzia handitu zelako. 1945ean, Espainiako Estatuko langileen erosmen ahalmena 1935ekoaren erdia izan zen[31]. Kontuan izan behar da, 1944tik aurrera ateratako Lan Kontratuen Legearen arabera, Estatua zela (ekonomia adar bakoitzeko Sindikatu Bertikalen «aholkularitza» onartuta; sindikatu horiek enpresariek kontrolatzen zituzten) soldatak finkatu ahal zituen bakarra, eta soldaten igoerak beti egon ziren salneurrien igoeren azpitik. Lan-orduetan ere langileen kontrako neurriak hartu zituen erregimen frankistak: 1939an gobernu frankistak ofizialki luzatu zuen lan-astea, 48 ordukoa ezarri baitzuen 40 ordukoaren ordez. Hala ere, beharrezko ordu estrak kontuan izanda, langileek

egunean hamar edo 11 ordu egin zitzaketen praktikan, 48 ordu horiek aise gaindituta[32]. Gainera, langile guztiek «liburuxka profesionala» izan behar zuten; horretan lan egin zuten enpresen zerrenda eta horien oharrak agertzen ziren, eta horrek zerrenda beltzak areagotzea errazten zuen.

Bestetik, atzerakada bat izan zen ekonomian ere. 1940ko hamarkadan, gosea eta elikadura lortzeko falta zirela-eta, «desindustrializatze» prozesu bat izan zen, horren adibide da nekazal populazioaren ehunekoa % 45etik % 55era igo izana[33]. Ekoizpenari dagokionez, 1929ko zifrak ez ziren 1950eko hamarkadara arte berreskuratu; Espainia izan zen orduan Europa osoan gutxien hazi zen herrialdea[34]. Frankisten arabera, «gerrak ekarritako suntsipenaren ondorio» izan zen hori, baina argudio hori ez da sostengatzen kontuan hartzen baldin badugu Europako herrialde gehienek suntsipen handiagoa jasan zutela II. Mundu Gudan. Jose Maria Lorenzo Espinosa historiagileak ere badio garaiko iturri frankistek ez zutela suntsipena erabatekotzat jotzen[35]. Alderatuz gero, Europako Ekialdean are gehiago suntsitu zituzten herrialdeak II. Mundu Gudan, eta hala ere, hazkundea handiagoa zen: adibidez, 1949tik aurrera Alemaniako Errepublika Demokratikoaren parte izango ziren lurretan, 1929koaren herena zen ekoizpena 1946an, eta hala eta guztiz ere, 1950ean jada gainditu egin zuen ekoizpen hori. Espainiak berdindu egin zuen[36].

Bestalde, «inbertsio publikoa» eta «interbentzionismoa» ere aipatu izan dira. Ez gara orain hemen luzatuko, baina argi utzi behar dugu gauza bat: interbentzionismoak ez du derrigorrez esan nahi langileen ongizatearen alde egitea. Kasu honetan, adibidez, esku-hartzeak jabetza pribatua babestea zuen helburu[37]. Adibidez, Espainiako interbentzionismoari dagokionez, muga bat zuen: banketxe pribatuak. Banketxe pribatuak sekula ez ziren frankismoarekin bezain ondo bizi izan, adibidez, euren zorra Espainiako Banketxearen bidez automatikoki pignoratzeko eskubidea zuten[38]. Horren emaitzetako bat izan zen burtsaren errenten igoera, argi azaltzen zaigu, esaterako, errenta finkoen kontratazioa, 1936ko kopurua % 100ean ezartzen badugu –konparatze aldera–, 1944an % 3.107,8koa zen[39]. Horri gehitu behar diogu presio fiskal erregresiboa; gerraren osteko Mendebaldeko Europako estatuen artean, Espainia zen bere errentaren zerga bidez bildutako zatirik txikiena zuena, soilik % 14[40]. Bestetik, Fuentes Quintana bezalako ekonomista batek, 1961ean esan zuen zerga sistema frankista «zaharkitua» zela, «ez baitzen benetan errentak zergapetzeko sistema bat»[41]. Bestetik, zerga sistema «lauaren» (*flat tax*) antzeko sistema bat izanda, eta horrekin batera luzamenduak eta hobariak ugariak izanda, «goi-klaseen aldeko sistema bat» osatzen zuen sistema horrek[42]. Borja De Riquer historiagilearen arabera, frankismoaren menpeko Espainia «paradisu fiskal» bat zen[43]. Laburtzearren, Miguel Angel Aparicio historiagilearen esanetan, frankismoak

Banketxe pribatuak sekula ez ziren frankismoarekin bezain ondo bizi izan, adibidez, euren zorra Espainiako Banketxearen bidez automatikoki pignoratzeko eskubidea zuten. Horren emaitzetako bat izan zen burtsaren errenten igoera

Irungo defentsaren tren blindatua, Gipuzkoa

Laburtzearren, Miguel Angel Aparicio historiagilearen esanetan, frankismoak eta faxismoak, Espainian, XIX. mendeko liberalen ametsa bete zuten: Kapitala barne oztopo guztietatik askatzea

eta faxismoak, Espainian, XIX. mendeko liberalen ametsa bete zuten: Kapitala barne oztopo guztietatik askatzea[44].

Jakina, politika horren ondorio bat izan zen drama soziala, lehen urteetan gose handia pairatu behar izan baitzen (kontuan izanda prezioen igoeran beste faktore batek funtzionatzen zuela: merkatu beltzak, zeinetan erregimenaren kargu altu askok parte hartzen zuen). Goseak, gainera, gaixotasun batzuen okertzea ekarri zuen; adibidez, 1941ean tifus izurrite bat izan zen, baita tuberkulosia ere: 1946 eta 1950 artean hildako gizonen % 10 eta emakumeen % 6 tuberkulosiak jota hil ziren[45]. Kalkulu batzuen arabera, 1945eko elikadura kontsumoa, batez beste, 1936an izan zenaren erdia izan zen[46]. Berez ez dugu horretan gehiago sakontzeko espaziorik, baina aipa genezake, adibidez, 1940 eta 1945 artean gizonezkoen batez besteko bizi-itxaropena 47 urtekoa zela eta emakumezkoena 53 urtekoa[47]. Gosearen eta Kapitalaren aldeko politika frankismoak lotu zituen bi aspektu izan ziren, Cazorlaren ustez[48]. Michael Richards-en arabera, gosea erregimenak erabili zuen arma bat izan zen, beheko klaseen ezinegona politikoki adieraz ez zedin[49].

Oro har, Gerra Zibilak ezarritako «aldekoen komunitatearen» trinkotzeak, batetik, (gerraren osteko errepresioa prozesu horren parte da), beldurrak eta goseak eragindako despolitizazioak, bestetik, eta zenbait klase soziali emandako aldeko tratuak, azkenik, frankismoaren oinarri sozialak taxutu zituen. Erregimenaren aldeko klase sozial horiek, oro har, erregimen faxista klasikoen aldekoen antzekoak baldin baziren ere, erregimenarekin elkar eragiteko modua ezberdina izanda (bai jarduera mailan, bai mobilizazio mailan, baita ideologizazio mailan ere), hori, nolabait, erregimenaren moldatze-gaitasuna handitzen lagundu zuen faktoreetako bat –ez bakarra– izan zen. /

Euskal milizia antifaxisten propaganda eta dinamitarien irudia

Euskal miliziano antifaxistak
Gipuzkoako frontean (1936)

ERREFERENTZIAK ETA OHARRAK

1. ARENDT, Hannah: *Los orígenes del totalitarismo*. Arendti kritika zorrotza egin zioten marxisten artean Domenico Losurdo italiarra dugu. Losurdoren arabera, faxismoa «totalitarismo» huts batek definitzen badu eta horrekin, «beste totalitarismoekiko» –hau da, Guda Hotzean liberalen etsai zen SESBrekiko- erkatze bat egin nahi bada, kontuan izan beharko da faxismoak bere gobernu-teknikak askotan erregimen liberalengandik hartu zituela. LOSURDO, Domenico: *Stalin. Historia y crítica de una leyenda negra*. El Viejo Topo. Bartzelona, 2008.

2. ZETKIN, Klara: *«Der Faschismus»*. 1923.

3. DIMITROV, Georgi: *Escritos sobre el fascismo*, Akal. Madril, 1976. Dimitrovek bere bizitzan zehar idatzitako idazki ezberdinen bilduma.

4. POULANTZAS, Nikos: *Fascismo y dictadura*. 1976.

5. POLANYI, Karl: *La gran transformación*. Hainbat edizio izan ditu lan honek.

6. NOLTE, Ernst. *Fascism in its Epoch*. 1963.

7. HOBSBAWM, Eric: *Historia del siglo XX*. 1994.

8. GRIFFIN, Roger: *Fascismo y modernismo*. 2007. Griffinen arabera hau da eskuin ezberdinen arteko ezberdintasun nagusia, faxismoaren «modernismo alternatiboak» gizaki berri bat eta honekin batera nazioaren berrasmaketa, palingnesia, bilatzen zituen. Honekin batera, Griffinen arabera, faxismoaren arabera nazioa materiatik existentzia fisikotik at zegoen traszendentziazko izate bat zen.

9. Hala ere, ez dugu pentsatu behar Espainian edo beste tokietan faxistek boterea haiek bakarrik lortu zutenik edo beste indarren kolaborazioari uko egin ziotenik. Mussolini zein Hitlerren lehen gobernuak koaliziozkoak izan ziren, eta zenbait kasutan, adibidez Italian, beste partidu batzuk absorbitu zituzten (Italiako Asoziazio Nazionalista). Hala ere, kasu hauetan koalizioa alderdi bakarreko Estaturanzko urrats bat izan zen, faxistak «koalizioko pisuzko alderdia» zirelarik; Espainian ordea «koalizioaren alde ahula» izan ziren.

10. LINZ, J. J.: «Una teoría del régimen autoritario. El caso de España», in PAYNE, Stanley (zuz.): *Política y sociedad en la España del siglo XX*. Akal argitaletxea. Madril, 1978, 205-263 or.

11. Tusellek frankismoa «pluraltasun mugatu» bezala definitu zuen. TUSELL, Javier: *La dictadura de Franco*. Altaya, Madril, 1996.

12. SANCHEZ RECIO, Glicerio: *Los cuadros intermedios del régimen franquista, 1936-1959*. Instituto Juan Gil Albert. Alacant, 1996.

13. GRIFFIN, Roger: *Fascismo y modernismo*. 2007. Palingenesia, Griffinen arabera, faxismoaren oinarrizko ezaugarri bat da, lehenago ezarri dugun moduan.

14. TUÑÓN DE LARA, Manuel: «Algunas propuestas para el análisis del franquismo» *Ideología y sociedad en la España contemporánea. Por Un análisis del franquismo*, Cuadernos para el diálogo, 89-102. or., Madril, 1977; eta FONTANA, Josep: «Introducción: Reflexiones sobre la naturaleza y las consecuencias del franquismo», in FONTANA, Josep (zuz.): *España bajo el franquismo* (9-38. or.). Critica. Bartzelona, 1996.

15. CASANOVA, Julian: «La sombre del franquismo: ignorar la historia y huir del pasado» in CASANOVA, Julian: *El pasado oculto. Fascismo y violencia en Aragón (1936-1939)*. Siglo XXI. Madril, 1992.

16. Hala ere, ezberdintasun bat azpimarratu behar dugu hemen: Poulantzasen arabera, Italian eta Alemanian faxismoaren gorakada «arrisku iraultzailea» itsasbeheran zegoenean igo zen; Espainian, aldiz, Fronte Popularrak 1936an hauteskundeak irabazi eta gero. Jakin badakigu Fronte Popularrak ez zuela iraultza sozialista ezarriko, baina ezkerreko indarren goraldian izan zen estatu kolpea.

17. Ildo honetan, adibidez Antonio Elorza Dominguezek eta Manuel Perez Ledesmak kritikatu dute frankismoa faxista bezala hartzeko errepresio bortitza ia ezaugarri beharrezko bakartzat hartzea, honek kritika historikoa baino moralaren antza, lehen komentatu dugun ildotik faxismoa «ankerkeria hutsarekin» identifikatzea- ekarriko zukeelako. ELORZA, Antonio. «Mitos y simbología de una dictadura» in *Bulletin d'Historie Contemporaine de Espagne*, 34 zkia., 47-68 or., 1996; eta PEREZ LEDESMA, Manuel. «Una dictadura por la gracia de Dios» in *Historia Social*, 20 zkia., 173-193 or., 1994.

18. SAZ CAMPOS, Ismael: *Fascismo y franquismo*. Valentziako Unibertsitatea. Valentzia, 2004, 155-160 or.

19. Ibidem, 83 eta 152 or.

20. Ibidem, 152 or.

21. Ismael Saz irakaslearen arabera, faxistizazioa hain zuzen prozesu baten eta indar faxisten eta berez faxistak ez zirenen arteko indar korrelazioaren emaitza bezala hartzeko abantaila bat, erregimen frankistaren eboluziorako barne faktoreak kontutan hartzeko gaitasunean zetzan, eboluzio hori «kanpotik diktatutako» (Fontana edo Tuñon de Lararen estiloan) gisa soilik hartzea saihestuz. Ibidem 83, 89-90 eta 163-164 or.

22. Adibidez, Luciano Casali da hauetako bat. CASALI, Luciano: *Franchismo. Sui caracteri del fascismo spagnolo*. Clueb. Bolonia, 1990.

23. MOORE, Barrington: *Los orígenes sociales de la dictadura y la democracia*. Critica. Bartzelona, 1973.

24. THOMÀS, Joan Maria: *La Falange de Franco. Fascismo y fascistización en el régimen franquista (1937-1945)*. Plaza&Janés. Bartzelona, 2001.

25. SAZ CAMPOS, *Ismael: Fascismo y franquismo*. Valentziako Unibertsitatea. Valentzia, 2004, 88 eta 253 or.

26. ITURRALDE, Juan: *La guerra de Franco, los vascos y la Iglesia (1. bol.: Quiénes y por qué prepararon la guerra y cómo comenzó)*. Clero Vasco. Donostia, 1978.

27. Hauxe da gertaera hau hoberen aztertu duen egilearen, Ismael Saz irakaslearen iritzia. Kapitulu honetan batez ere Sazek emandako interpretazioa jarraituko dut. SAZ CAMPOS, Ismael: *Fascismo y franquismo*. Valentizako Unibertsitatea. Valentzia, 2004, 125-150. or.

28. Francoren zirkulu politiko gertukoa honetan oso kontziente zen 1937ko martxoan italiarrei bidalitako dokumentu batean idatzita adierazten den bezala. Dokumentu hori Italiako Kanpo Arazoetako Artxiboan gordetzen da. Sinatu gabeko dokumentu bat da, baina Sazen arabera Francok edo gertuko batek idatzitako dokumentu bat zen. Dokumentu horrek «Falangearen ezaugarriak oinarri izango zituen alderdi bat sortzea» gomendatzen zuen «ideal nazionalen aldeko espainiar guztiak», hau da, estatu kolpearen aldeko frankista guztiak bilduko zituena, eta gerora Alderdi bakarra izango zena). Ibidem, 137-140 or.

29. Ismael Sazen arabera, Francok ezarri zuen diktadura –eta alderdi berriak han ez zuen paper txikia jokatu– «II Errepublika garaian, faxistizatze prozesua bizi zuten eskuindarrek amestutako diktaduraren oso antzekoa izan zen». Ibidem, 139 or.

30. BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975)*. Economía. Sintesis. Madril, 2001, 98 or. Hala ere «berritzultze» asko, zerbitzu honen bidez baino «indarrez» izan ziren, hau da, armada kolpistak lurraren banaketa aurreko egoerara itzularazten zuen herri ezberdinak konkistatu ahala, zerbitzu honek egoera hori berretsi egin zuelarik. Zerbitzu honen buru zen Angel Zorrilla Dorronsorok ere onartu behar izan zuen «berritzultze gehienak legez kanpo» egin zirela. Barcielaren taldearen arabera, «Berritzulitako 6,3 milioi hektareatik soilik milioi erdi berritzuli zituzten legezko formak erabilita».

31. Higinio París Eguilaz ekonomialari frankistaren arabera, 1936 eta 1948 artean, langileen eroste ahalmenaren galera % 20 eta % 35 artekoa izan zen, hori bai, París Eguilazek enpresa batzuetan ezarri ziren plusak (soilik 1948an legeztatuak, baina kasu batzuetan «zeharka emandakoak) kontutan hartzen zituen. Paris Eguilazek onartzen zuen plusik ezean, langileen erosmen-ahalmena erdira jaitsi zitekeela. FONTANA, Josep: «Introducción: Reflexiones sobre la naturaleza del franquismo» in FONTANA, Josep (ed.): *España bajo el franquismo* (9-38 or.). Critica. Bartzelona, 1986, 34 or.; eta PARIS EGUILAZ, Higinio: *Diez años de política económica en España, 1939-1949*. Madril, 1949, 175-191 or.

32. DE RIQUER I PERMANYER, Borja: *La dictadura de Franco*. Crítica eta Marcial Pons argitaletxeak. Sabadell (Bartzelona), 2010, 278-279 or.

33. CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo 1939-1975*. Alianza argitaletxea. Madril, 2016, 30-31. or.

34. LORENZO ESPINOSA, Jose Maria: *Dictadura y dividendo. El discreto negocio de la burguesía vasca. (1937-1950)*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, 1989, 27-29. or.

35. LORENZO ESPINOSA, Jose Maria: *Dictadura y dividendo. El discreto negocio de la burguesía vasca. (1937-1950)*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, 1989, 64-65. or.

36. GARCIA DELGADO, Jose Luis: «Estancamiento industrial e intervencionismo económico en el primer franquismo» in FONTANA, Josep (ed.): *España bajo el franquismo* (170-191 or.). Critica. Bartzelona, 1986, 174-175 or. Kontuan izan behar dira bi gauza: 1929ko Alemaniako Ekialdeko garapena Espainiakoa baino handiagoa zen, beraz 1950an langa gainditzea zailagoa zitzaion AEDri Espainiari baino. Bestetik, gudaren ondorioz izandako ekoizpen-jaitsiera Espainian askoz txikiagoa izan zen: Albert Carrerasek % 14ko ekoizpen galera kalkulatzen du eta Leandro Prados de la Escosurak % 20.

37. LORENZO ESPINOSA, Jose Maria: *Dictadura y dividendo. El discreto negocio de la burguesía vasca (1937-1950)*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, 1989, 59. eta 71-72. or.

38. BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975)*. Economía. Sintesis. Madril, 2001; eta LORENZO ESPINOSA, Jose Maria: *Dictadura y dividendo. El discreto negocio de la burguesía vasca (1937-1950)*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo, 1989, 41. or.

39. GONZALEZ PORTILLA, Manuel eta GARMENDIA, Jose Maria: *La posguerra en el País Vasco: Política, acumulación, miseria*. Kriselu. Donostia, 1988. 16-27 eta 106-117 or.; eta CAZORLA SÁNCHEZ, Antonio: *Las políticas de la victoria*. Marcial Pons. Madril, 2000, 73. or.

40. Konparazioz Italian % 21 zen, eta Britainia Handian % 33 zen. BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975)*. Economía. Sintesis. Madril, 2001, 59 or.

41. FUENTES QUINTANA, E.: «Los principios de reparto de la carga tributaria en España» in *Revista de Derecho Financiero y de Hacienda Pública*, 41 zkia. (161-298 or.), 1961; in BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975)*. Economía. Sintesis. Madril, 2001, 60-61 or.

42. BARCIELA, Carlos; LOPEZ, Maria Inmaculada; MELGAREJO, Joaquin eta MIRANDA, Jose Antonio: *La España de Franco (1939-1975)*. Economía. Sintesis. Madril, 2001, 62-63 or.

43. DE RIQUER I PERMANYER, Borja: *La dictadura de Franco*. Crítica eta Marcial Pons argitaletxeak. Sabadell (Bartzelona), 2010, 259 or.

44. APARICIO, Miguel Angel: «Sobre los comienzos del sindicalismo franquista, 1939-1945» in FONTANA, Josep (ed.): *España bajo el franquismo*. (78-99 or.). Critica. Bartzelona, 1986, 83 or.

45. DE RIQUER I PERMANYER, Borja: *La dictadura de Franco*. Crítica eta Marcial Pons argitaletxeak. Sabadell (Bartzelona), 2010, 282 or.

46. ASKOREN ARTEAN: «Evolución económica i condicions de vida i treball» in ASKOREN ARTEAN: *Franquisme. Sobre resistència i consens a Catalunya (1938-1959)*. (53-121 or.). Critica argitaletxea. Bartzelona, 1990, 110-111 or.

47. DE RIQUER I PERMANYER, Borja: *La dictadura de Franco*. Crítica eta Marcial Pons argitaletxeak. Sabadell (Bartzelona), 2010, 284 or.

48. CAZORLA SANCHEZ, Antonio: *Miedo y progreso. Los españoles de a pie bajo el franquismo 1939-1975*. Alianza argitaletxea. Madril, 2016, 114. or.

49. RICHARDS, Michael: *Un tiempo de silencio*. Critica. Bartzelona, 1999.

ELKARRIZKETA

Bultzada Txuriurdina
Errealeko zaletuen taldea

Irudiak **Beñat Etxebarria**

«Orokorrean, epe motzean pizten da kontzientzia hintxadetan. Gai konkretu batzuen inguruan jendea bildu, jantzi, eta horretan lan egiten hasten dira kideetako asko»

Ehunka milaka pertsona mugitzen dira astebururo haien futbol taldeak animatzera, taldearen koloreak jantzi eta harmailetan gainontzeko zaletuekin taldeari bultzada bat ematera. Haurrak, gazteak, helduak, agureak; denetarik biltzen da zelaian. Hala, zaletuen artean ere badaude taldeak, hintxada ezberdinak, jokalari zein zaletu honen edo bestearen izena daramatenak, bera omentzeko. Ez da txikikeriatzat hartzekoa harmailek duten eragina, ideologia ezberdinen bozgorailu modura. Espainiako Estatuko mugimendu faxistek urte luzez daramate futbol munduan antolaturik, eta ez dira gutxi estatu mailan ideologia horrekin lerratu edo aurkaritza argi bat erakusten ez duten harmailak. Honenbestez, beste zenbaitek ere faxismoari aurre egiteko espazio gisa ulertzen dute harmaila, gizarteko masa zabaletan oinarrizko balore antifaxistak txertatzeko mugimendu modura. Bultzada Txuriurdina Errealeko zaletuen taldeko bi kiderekin izan gara solasean.

Futbol hintxadak bezalako masa mugimenduetan zergatik du garrantzia antifaxismoaren balio politikoak?

Bultzada1: Nire ustez, langile klaseak oinarrizko ideologia edo balio gisa hartu beharko luke, eta noski, bere egin. Hau da, oinarrizko balore antifaxistak praktikara eramateko aukera ematen digu futbol munduak. Bestalde, belaunaldi berriak balio eta oinarri politiko sendo eta aurrerakoi batzuetan hezteko aukera ematen du eta oso garrantzitsua da, hortaz, faxismoarekiko ukazio bat izango den mugimendu bat gorpuztea.

Bultzada 2: Futbol munduan, alde batetik, harmaila antifaxistak dauden bezala harmaila eta talde faxistak egon badaudelako. Hainbatetan aurre egin behar zaie harmailetan zein kalean. Beste alde batetik, ulertzen dugulako, politikoki orokorrean, ez bakarrik antifaxismoarekin, langile klasea edo orokorrean gizartearen espektro handi bat mugitzen dela joko zelai horretan. Lan politikoa egiteko gaitasuna ematen du joko zelaiak, nahiz eta instituzioek (ligek, taldeek...) oztopatzen gaituzten eta ez diguten uzten nahiko genukeen bezalako lana egiten. Hala ere, baliatu egin behar dugu gure interesetarako. Esate baterako, sozializazio lanak egiteko.

B1: Azken finean pasioa harmailara heltzen da eta aldarrikatzen dugun zapalkuntzarik gabeko gizarte horren isla izan daiteke.

Zertan islatzen da mugimendu antifaxista bat harmaila batean? Zein balio edukiko luke antifaxismoak harmailetan?

B2: Antolakuntza ereduan, erabilitako sinboloen esanahian... Guk argi daukagu zer ez dugun nahi, ostera, zer nahi dugun definitzea da kostatzen zaiguna futbol esparruan. Horrek muga handiak sortzen dizkigu. Kritika nagusia futbol modernoari egiten diogu, eta horrek muga erraldoiak dauzka beste futbol edo kirol eredu bat eraikitzeko orduan oinarri politiko horiek gure gain hartzean.

B1: Balio politikoei dagokienez praktikan jartzen ditugu, eta bozgorailu bat ere bagara horietarako. Arrazismoari, sexismoari, nazio zapalkuntzari... aurre egiten diegu, zabaldutako mezuekin nahiz maila praktikoan. Edozein arraza eta etniatako jendea onartzen da, edozein kulturatakoa, edozein jatorrikoa, edozein generokoa...

B2: Orokorrean, bestelako mugimendu politikoek bezala, hintxadek ere egunerokotasunean egiten dute

Mugak eduki arren indartu gaitzakeen mugimendu bat da, eta harengandik apustu egin beharra dago. Azken finean, (...) hintxada gehienak faxistaz josita daude

lan, harmailetan zein kalean, badakigu-eta antifaxismoa antolakuntzaren bidez egikarituko dela, eta kalean edo harmailetan hainbat espresio izango dituela. Mugak eduki arren indartu gaitzakeen mugimendu bat da, eta harengandik apustu egin beharra dago. Azken finean, Espainiako Estatu mailako hintxada gehienak faxistaz josita daude. Gainera, asko era nahiko anbiguoan –faxismoaren aurkako posizionamendu argirik gabe– jarduten dute, eta horri aurre egitea gure lana da.

B1: Futbola eta harmailak amesten dugun edo eraikitzen gauden gizarte horren isla izan daitezen saiatzen gara, masa espazio gisa.

Nolako emaitzak nabari dira epe motzean hintxadan bertan? Esate baterako, belaunaldi gazteetan?

B1: Orokorrean, epe motzean pizten da kontzientzia hintxadetan. Gai konkretu batzuen inguruan jendea bildu, jantzi, eta horretan lan egiten hasten dira kideetako asko.

B2: Esango nuke Espainiako Estatu mailan oso politizatuta egon den mugimendua izan dela Europako beste leku batzuekin alderatuta. Behintzat talka askoz handiagoa egon da. Beraz, Euskal Herrian mundu honetara sartzen den gehiengoa kezka politikoekin sartu ohi da eta garapen bat edukitzeko aukera ematen dio, egunerokoan borroka hori txertatzekoa.

«Faxistak antolatzen diren lekuetan, gehienetan, haien kluben babesa izan dute. Eta, noski, poliziarena. Askotan bertako kideak poliziak dira. Aurpegi garbiketak egin izan dituzte, esate baterako izena aldatuz»

B1: Nik uste dut, Euskal Herrian behintzat, historikoki mugimendu iraultzailearekin lotuta egon den adierazpen bat dela, hau da, ez da errealitatetik at dagoen isla bat.

Ez da soilik asteburuetan batu eta partiduetara doan mugimendu bat. Egunerokotasunean antolatutako mugimendu bat da. Futbol talde gehienek dute izaera politiko nahiko markatuagoa. Zein da Euskal Herriko hintxaden izaera? Eta horien artean batera ekiteko zein tresna sortu izan dira?

B1: Futbol talde nagusi guztiek haien hintxada dute; Euskal Herriaren kasuan, guztiak antifaxistak. Historikoki, taldeen arteko koordinazioa bultzatu izan da, izaera eta forma ezberdinarekin, Euskal Herriko hintxak batzeko helburuarekin. Gaur egun, Euskal Zaletuak izenarekin ezagutzen da koordinazio hori.

B2: Marko horretan batez ere nazio mailako ikuspegi batekin erantzuten saiatzen da. Ez da bakoitza bere taldearen interesak defendatzera sartzen. Esate baterako, Euskal Selekzioaren alde egiten da eta Euskal Herrian izan daitezkeen problematika ezberdinen inguruko lanketak aurrera eramaten dira. Modu horretan ulertzen dugu bertan gaudenok espazio hori.

B1: Azken urte honetan *Eurocopa Honi Ez* plataforman ibili gara murgilduta; 2020an Bilbo egoitzatzat izango zuen makro-ekimen bat zen azken Eurocopa, bereziki Euskal Herriko sektore pobreenak kaltetzen zituena. Horretan eta ofizialtasunaren bidean pausoak ematen ibili gara, denon intereserako koordinazio lanetan, minimo batzuen baitan.

Hitz egin duzue harmaila antifaxistetaz, antifaxismoaz, martxan dauden antolakuntza forma konkretuetaz... Zein gaitasun dute talde faxistek harmailetan antolatzeko eta masetan haien ideologia txertatzeko?

B2: Faxistak antolatzen diren lekuetan, gehienetan, haien kluben babesa izan dute. Eta, noski, Poliziarena. Askotan bertako kideak poliziak dira. Aurpegi garbiketak egin izan dituzte, esate baterako izena aldatuz.

B1: Babes hori interes batzuei lotuta ematen da beti. Horren adibide gisa dugu *Jimmy* akabatu zuten Frente Atleticoko kideen kasua. Erantzule guztiak geratu dira libre, badirudi hor ez dela ezer gertatu... Oso aurretik datorren gai bat da hau; talde faxisten eta futbol zein estatu-instituzioen arteko erlaziotik, hain zuzen.

B2: Estadio batzuetan zaletuek talde faxistak babestu izan dituzte. Ez da arraroa, esate baterako, talde faxista batean egon gabe, horien bufanda jantzita izatea zaletu batek. Hala ere, badirudi futbol esparruan babes orokor hori gutxitzen ari dela.

B1: Faxistak Estatuaren errepresio instituzioetatik gertu egoteagatik ezaugarritu izan dira, edota familia boteretsuetakoak izateagatik. Gainera, normalean faxismoaren esparruko *pijoak* izan dira.

Bada diferentzia nabarmenik harmaila antifaxisten eta faxisten arteko klase konposaketan?

B2: Bai, bada nolabaiteko klase ezberdintasun bat, hintxada antifaxistak, nagusiki, langile klaseko jendeak osatutakoak dira. Horrek ez du esan nahi, masa mugimendu diren heinean, hintxada faxistetan langile klaseko jenderik ez dagoenik. Baina egia da talde faxista nagusietako gidaritzan jende diruduna dagoela, horren adibide argia da Ultra Sur. Epaileekin eta Poliziarekin harremana izan duen talde zehatzen bat ere badago, baita militarrekin izan duenik ere.

> ***Mozal Legea sortu aurretik Kirolaren Legea atera zen, esperimentu antzeko bat izan zena. (...) [Estadioak] Masak mugitzen diren espazioak izanik, haientzat oso aproposak dira kontrolerako neurri berriak sortzerakoan, laborategi gisa***

B1: Eskuin muturreko taldeek badute kluben laguntza. Adibidez, *Jimmy* erail zuten enboskadan itzalita zeuden bideokamerak. Neurriak itxurazkoak izaten dira; esaterako, Calderneko Frente Atleticoren pankarta desagertu zen arren, haiek han jarraitzen dute gaur egun ere. Inoiz ez zaie ezer gertatzen.

Futbol taldeen edo enpresen helburu bat da harmaila apolitikoak edukitzea, bakarrik taldearen koloreak ikusten diren harmailak izatea. Zein izango litzake euskal hintxadekiko harremana?

B1: Orokorrean bide berdina hartu dute talde guztiek, nahiz eta klub edo presidenteren batek ezberdin ekin dezakeen: ezin da ikur politikorik sartu harmailetan, ezin da kantuetan ezer politikorik esan... Protokolo bat dago guztiarentzat, uniformetasunerako joera dago.

B2: Aipatzekoa da 19/2007 Legea; kirolean egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa. La Liga antolakundearen lege bat da, zigortzeko eta erreprimitzeko ahala duena eta Zigor Kodearekin harreman zuzena duena. Biolentziaren Aurkako Batzordea da epaitzen duena eta isun ikaragarri handiak jartzen ditu. Hala, dirudunen interesei erantzuten die, oso argi dago zein den legearen asmoa; ezaugarri antzekoak dituzten legeak ari dira aplikatzen Europan, maila desberdinean tokian toki. Gradetako adierazpen ideologikoak jazartzen dituzte, adibidez, zigortu egin zuten Anoeta zelaian *estelada* bat atera izana.

B1: Espazioan bertan ezartzen duten kontrol soziala ere aipatzekoa da; hala nola, kamerak, guztiz kontrolatuta dauden sarrerak eta irteerak, kompartimentutan banatutako harmailak, eta abar. Hainbat estadiotan kontrol biometrikorako mekanismoak ere ezarri dituzte jada.

Anoetako *esteladaren* kasuari erreparatuta eta ikusita zaletu taldeen artean faxistak zein antifaxistak daudela, ba al dago ezberdintasunik adierazpen ideologikoak epaitzeko orduan?

B2: Bai, egia da svastika bat ezin dela atera, baina ez da berdina gertatzen bandera frankistarekin edota beste zenbait ikur faxistarekin. Aipatu dugun legea segurtasun arduradun batek interpretatzen du; dokumentu batek esaten dio zer dagoen debekatuta eta zer ez, eta alde berdinera begiratzen dute beti.

B1: Euskal Herrian asko dira zelaietara sartu ezin diren ikurrak, eta 3.000 eurorainoko isunak izan daitezke. Gainera, lege hori errespetatu ezean, kanporatu egiten zaituzte estadiotik. Aspektu askotan, neurri horiek guztiek publizitate- eta enpresa-interesei erantzuten diete.

Zergatik ezartzen da horrenbesteko kontrola?

B1: Mozal Legea sortu aurretik Kirolaren Legea atera zen, esperimentu antzeko bat izan zena. Hori jasan behar izan genuen, eta horren bide beretik etorria da Mozal Legea, baina beste esparru bati begira: kaleko jarduna erreprimitzea. Kontrol sozialak ere garapen berdina izan duela esan dezakegu: hasieran kamerez josi zituzten estadioak eta, ondoren, kaleak. Masak mugitzen diren espazioak izanik, haientzat oso aproposak dira kontrolerako neurri berriak sortzerakoan, laborategi gisa. /

Argitaraturik
2021EKO UZTAILEAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA

Lege gordailua
SS-01360-2019

Lizentzia

arteka

«Mundu zaharra hiltzen ari da,
berriari kostatzen zaio agertzea
eta argi-ilun horretan sortzen dira munstroak»

Antonio Gramsci